



INOZENTZIO OLEA

**OTEMOTXEKO
ARNASA**

OTEMOTXEKO ARNASA

AUSPOA LIBURUTEGIA

173

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

INOZENTZIO OLEA

OTEMOTXEKO ARNASA

Auspoa Liburutegia
1984

Azalean: Zerain, I. Olea'ren jaioterria.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)
Fotokonposatzaile: Lente – Estella
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-116-7
Depósito Legal: NA. 1.018-1984

ARKIBIDEA

Eskeintza	9
Holandako berriak	11
Ipurtargia ta zapoa	16
Lasarte bertsolariari	20
Ahetzeko Mattin	25
Basarriri	29
Babarrun garestiak	32
Jakakortajarena jaunari	37
Au saltsa!	42
Burutapenak	49
Madura ito ez dedin	56
Alkar galdu bearra	62
Pelota	67
Gaztediari	72
Gipuzkoarrak eta bizkaiera	79
Eiz erreza	84
Lazkao Txiki	93
Goizeko otoitza	98
Amodioa	103
Pentsaketan	109
Xalbador il da!	114

Jose Lizaso'ri	118
Negua	123
Arantzazu'n	127
Naparroa	132
Zatiturik	137
Legazpi'ko erretorea	141
Ixil-aldia	146
Anima ez daukat alai	151
Iparragirre'ri	154
Ondo gaude	158
Zer emana urri	161

ESKEINTZA

Gipuzkoako goierritarrok, otemotxean bizi gerala kezkarik gabe aitortu izan diegu Beterrikoei, eta ala bear ere.

Beterriko lurra, euriz eta sagardoz obeto goxatua izanik, Goierrikoa baiño ezeagoa eta emaitzez ugariagoa da. Bertsolariz, berriz, zer esanik ez. Baiña otemotxe-koak ere ez gera borondatez urriak, irakurle.

Gure euskerak artzen ditu gaur
makiñabat euri jasa,
eta berari zutik eustea
ez da guretzat jolasa.
Al dedantxo egin gaberik
ezin naiz ni bizi lasa,
eta zuk ere ez badezu nai
albotik ixilik pasa,
lagun dezaizun eskeintzen dizut
OTEMOTXEKO ARNASA.

I. Olea

HOLANDAKO BERRIAK

- 1/ Orain aldiand Holandatikand
eltzen zaizkigun berriak,
ez dakit izan ote litezken
danak oso pozgarriak.
Apaizak ere ezkondu-nairik
omen dauzkagu jarriak,
nunbait ez jakin ezkon-ondoren
sortu oi diran larriak.

- 2/ Nola arraio jo ote ditu
alde ortako aiziak?
Ni bai arritu apaiz jaun oiek
sortu dituzten auziak!
Gorputzak ezin errenditurik
ote dabiltza guziak?
Lengo indarririk ez al du orain
Jaungoikoaren graziak?

- 3/ Ia urtetan sartua naiz ta
zerbait ikusitakua,
erabaki bat eman nai bada
bear dan bezelakua:
Gorputz onixe etzaio beti
errez ematen naikua,
ezkondu arren bizitza ez da
arrosa kolorekua.
- 4/ Maitetasuna azaldu bear
nolabait ere alkarri,
baiña aurrea goxua bada
atzea mikatza sarri.
Gauetzko lana nolakua dan
egunez begira jarri,
traba bat kendu al dan moduan
ta zazpi milla ezarri.
- 5/ Apaiz askotxo aztoraturik
Holandan gaur egunean,
ez jakiñ bati zer datorkion
esosatzen dan unean.
Ase-eziñak baldin bagera
anka libre degunean,
komeri latzak izango dira
larrak eltzen digunean.

- 6/ Apaizak ere zalantz-aldiak
nola dituzten izaten,
Aita Santuak epai eman du
argia izan dezaten.
Zenbait kutizi bete eziñak
lanak dizkigu ematen,
baiña andreak ere badaki
ederki ezetz esaten.
- 7/ Entzun izan det ezkontzerako
jarri bear dala ero,
Holandan ere esaera au
jakingo da onuzkero.
Apaizak ere pasatu bear
makiñatxo bat otz-bero,
ezkonduentzat dauden ordenak
benetan artu ezkero.
- 8/ Andreak ez du senarra artzen
beti goxo itzegiñez,
ixilik ere gelditu oi da
eta arpegi muxiñez.
Bere onera ekarri nai, ta
nundikan eldu jakiñ ez,
asmatzen lanak izango dira
naiz eta jakiñ latiñez.

- 9/ Gure gorputzak ez du izaten
griña bat ere lotirik,
erle-ozkadak artu gaberik
ez da miazten eztirik.
Ezkontzak frutu ematen badu
maitasun-intzez bustirik,
ondorenean izango al da
errezatzeko astirik?
- 10/ Oartu bitez gure animak
iru etsai dituala:
mundu maltzurra, deabrua ta
gure aragi argala.
Ezkondu arren irugarren au
txit motz lotu bear dala,
bestela pasa bearko dira
astean bi ostirala.
- 11/ Ai, Holandako apaiz maiteok!
Nik ez dakit dakizuten,
emaztearen kargu eginda
gero zer datorkizuten.
Luma goxodun txoriak nola
moko txorrotxak dituzten,
sermoi-egiten aiñako lanak
izango dira entzuten.

12/ Ez izan nigan ezkondu eta
gaitzetsi dedan usterik,
baiña ez dago zenbait kontseju
alperrik galtzen uzterik;
ez det egingo zuek emanak
zeuei eskeñi besterik:
Emen ez dago penatu gabe
zerua irabazterik.

Zeruko Argia, 1970-II-22.

IPURTARGIA ETA ZAPOA

1/ Udarako gau epel bat zala,
bide baztartxo batean,
ipurtargi bat antxe zegoan
argitan belar artean,
gau ozkarbian etsairik gabe,
gozoki, bere ustean.
Baiña zapo bat, argitasuna
begi larriz ikustean,
irain zakarrez asi zitzaion
aoa bete-bete.

2/ Ipurtargiak: – Baiña zapoa:
Nork dizu onuntza deitu?
Orain artean inun argirik
ez ote dezu nabaitu?
Neri onela erasotzeko
asarre zerk jarri zaitu?
Ustegabeen mindu bazaitut
arren zaitea lasaitu;
arnas pixkabat ar zazu, eta
zure bidetik jarraitu».

- 3/ Zapoak dio: – Nik maitaturik
gau bakarti ta illuna,
zuk zergatikan urratzen dezu
emengo baretasuna?
Ez al dakizu zure ñir-ñirrez
gogait-arazten dezuna?
Ar iñozoa! Ni berotzeko
daukazun ausartasuna!
Emen naikoa degu gauetan
nere kantuzko kin-kuna.
- 4/ – Baiña, zapoa, ez al gindezke
biok konpondu onean,
bizi bearra degun ezkerro
alkarren aldamenean,
kantatu eta argi egiñaz
alaxe bear danean?
Zure begiak ain larri daude
ia ia irtenean,
ez da ezer, ta baretu zaite
Jainkoaren izenean.
- 5/ – Oraindik ere kontsejuekiñ
al zatoz aldamenera,
zuk ergelkeriz txartu dezuna
ekarri nairik onera?
Bertan lertuta uztea obe
nuke or aldebatara.
Ia oinpean zapaldu eta
sartzen zaitudan lurpera.
Argi izpi bat badezu ere
ar bat besterik etzera.

6/ – Badezakezu, nere aldean
zu kementsua izanik;
ez det pentsatzen nik txarrerako
zuk ainbat indar dedanik.
Baiña ez nuke nai sinisterik
orren zitala zeranik,
ain gutxi nere argi apurrak
serbitzurik ez duanik;
gure Jainkoak ez baitu egiñ
ezertarako ez danik.

7/ – Argi egiten ez dakizu ta
zabiltz argi egiñ nairik,
uste bai baiña ezertarako
ere ez daukazu gairik.
Zu ikusteak ez dit ematen
une bat ere lasairik,
gauean ez da nere kin-kuna
beziñ albixte alairik,
aiñ ipurtargi narratsak nola
ez du izango etsairik?

8/ – Zapo maitea: Zergatik bizi
murgildurik illunpetan?
Aitortu bear argi premia
danok degula benetan.
Zitalkerizko zenbat oztopo
oraingo gau illunetan,
zenbat trixtura, kezka eta lan
gure denbora auetan!
Argi pittiñ bat kaltegarritzat
al degu zenbait unetan?

9/ Zapo maltzurak egitekoak
ondo dauzka ikasita,
barruan pertz bat gorrotozkoa
nola daukan egosita.
Mundu onetan ez da pakerik
alkar eziñ ikusita,
eta argia itzali nairik
txistu-botaka asita,
antxe uzten du ipurtargia
erabat lerdez josita.

10/ – Izen ona ta bizia biak
nai al dizkidazu kendu?
Nik uts egiña zuk gaitz egiñez
nai al zenduke zuzendu?
Ipurtargiak azken arnasa
itz auekiñ ematen du.
Eta zapoa, asarre biziz,
au esanaz da aldendu:
– Nik txisturik ez nizun botako
argi egiñ ez bazendu.

Zeruko Argia, 1970-VII-26.

LASARTE BERTSOLARIARI

- 1/ Bertso batzuek eskeiñi nairik
natorkizu gaur, Lasarte,
aspaldi ontan ezpaidet izan
nai nuken aiña aldarte.
Al dedan gisan artu nai bada
zure omenean parte,
San Joseetan ez naiz izango
zugandik oso aparte.

- 2/ Nere bertsoak ez dute, noski,
esango gauza berririk,
almenez gizon urria bainaiz
iñun badago urririk.
Beldurrez nago irudipenez
zure aurrean jarririk,
nik ez baitaukat zure moduan
agortz'eztan iturririk.

3/ Zure bertsoak, arin igorik
jotzen du zero urdiña,
eta ba-dakit ni ez naizela
zure ondorako diña.
Nere izkera egingo zaizu
gozo gabeko gordiña,
baiña gaur ez da nunai aurkitzen
maixu bat zure berdiña.

4/ Ai, zenbat bertso txukun askoak
nagon zugandik entzunik,
baiña etzazu uste beiñere
aspertu izan nazunik.
Zuri etzaizu iñoiz amaitzen
iñorentzat erantzunik,
naiz gizalegez jokatu beti
ta galdu gabe zentzunik.

5/ Zuk azkar asko aurkitzen dezu
bertsoa nundik asia,
bide errez bat baita zuretzat,
guretzat dana sasia.
Egun galdua ez da izaten
zuri entzuten pasia,
bertso botatzen jakin nai dunak
ba-du zeñi ikasia.

6/ Nik ondo dakit nola maixutzat
zauzkatzen zure lagunak,
gogoratuaz pozik zurekin
igarotako egunak,
ikasbidetzat artuaz zure
bertso lirain da bigunak,
entzun orduko aoran ezti
biurtu oi zaizkigunak.

7/ Baiña etzera bertsolari uts,
baizik txit gizon umilla,
sarritan zabiltz lagun artera
eramateko poz billa.
Zuri dizugun maitetasuna
nola egongo da illa,
zuk ezpaitezcu iñor baztertzen
naiz ta zeu izan abilla?

8/ Entzunagatik bertsoetatik
ez dala aurrerapenik,
zuk ez sinistu ori, Manuel,
ez galdu itxaropenik.
Bertsolaria sortu baziñan
etzazula izan penik,
nola ez dizun Euskalerrriak
ukatzen begirapenik.

- 9/ Lasarte maite: ez uste izan
kuttuna etzaitugula,
eta eskeintzen zaizun omen au
uxkur eskeintzen zaizula.
Artu zaiguzu gure maitasun
sakon, bero ta mardula,
eta sinistu, ziur gaiñera,
biotzetan zauzkagula.
- 10/ Bertsolaritza egingo zaizu
aldiz lanbide pixua,
sasi-jakintsu batzuek iñoiz
astintzen dute maixua.
Baiña jarraitu zazu landuaz
gure izkuntza gaixua,
erritarretan itsatsi dedin
zure euskera goxua.
- 11/ Aztu itzazu gaurtik betiko
egun pozik gabekoak,
mundu onetan danok txandaka
igaro bearrekoak.
Une guziak ezin ditezke
izan era batekoak,
begira zure ardura ere
nola daukan Jaungoikoak.

12/ Lasarte: ainbat poztutzen nau ni
zuri omen egiteak
nor arritzen du nere bertsozko
besarkada emateak?
Baiña badira ere zuretzat
naiko sari arloteak,
pentsatu zazu danak daudela
maitetasunez beteak.

La Voz de España, 1971-III-16 eta 17.

AHETZEKO MATTIN

- 1/ O, Mattiñ, biotz-biotzekoa,
zugana nator kantari,
al dedantxoa erantsi nairik
laister dezun omenari.
Ta zer eskeiñi, ni ez bezela,
doaiz betea danari?
Poz apurtxo bat berak ainbeste
poztu oi gaituanari.

- 2/ Amaika bider jarduna zera
gure plazetan bertsoan,
ta ainbat aldiz zuri entzunaz
murgildu gera gozotan.
Aspalditikan bagiñan ere
omen bat egiñ asmotan,
begira nola Euskalerriak
artzen zaitun gaur besotan.

3/ Umore onak ez ote zaitu,
Mattiñ, zu bere jabea?
Bertso alaiak bizkor jaulkitzen
zein da beste bat obea?
Bildurrik gabe, baiña gizonki,
txikia baiña trebea,
euskal arraza ondratzen dezun
pikaro gaitzik gabea.

4/ Danok dakigu sentimentuak
azaltzen badakizula,
eta gai alai jostalariak
ere maite dituzula.
Jakiñ ezazu zure irterak
txit pozgarri zaizkigula,
ta zure gatz ta piperrik gabe
xaltzarik ez daukagula.

5/ Zure irudi irripartsua
guretzat ain da xamurra,
algaraz nola baretzen duan
gure kopeta zimurra!
Orretarako asko da entzun
zure lenengo agurra,
Mattiñ, zu zera guri biotzak
osten dizkigun lapurra.

6/ Lagun artean apala zera,
bertso saioetan berdiñ,
giza-legea nola bear dan
ondo dakizu zuk, Mattiñ.
Mundu koxkor au zure jardunak
biurtzen du zero urdiñ,
zorioneko aingerutxo bat
sortu zalako Lapurdiñ.

7/ Zurekin alai izan diteke
bat noranaira joanik,
nola ez bada, zeran bezela
alaitasun uts izanik?
Eta gaiñera ez degu uste
gure anai ez zeranik,
euskaldun bakar bat bai ote da
zu maite ez zaituanik?

8/ Mundu onetan bizi bearrak
beti du zerbaiten arra,
illunaldiak ere sarritan
dago igaro bearra.
Baiña zuk jarrai, Mattiñ, ixiltzen
lagun urkoen negarra,
kezka askoren estalgarria
nola degun irri-parra.

9/ Bakoitza bere arazoetan
egon arren murgildurik,
gure biotzak ez daude beintzat
oraindik oso zaildurik.
Laister gaituzu maitale danok
zuregana urbildurik,
gure omena laztan eskeintzen
an Donostian bildurik.

10/ Artu ezazu bada biotzez
gure omen maitekorra,
euskaldun danok opa bezela
izan dedilla jatorra.
Euskalerrriak au egitea
zuan oso derriorra,
ea onela ordaintzen degun
guztiok dizugun zorra.

Zeruko Argia, 1972-I-16.

BASARRIRI

- 1/ Egun alaia Euskalerrian
igandez ospatzekua,
udaberriak negua aztu
arazten dun antzekua.
Ez da izango batek bertsuak
kolkuan gordetzekua,
eta batzuek ar zaizkidazu,
Basarri biotzekua.

- 2/ Gure biotzak zurekin daude
ta zergaitik ez alaitu,
zuri omena egite onek
ainbeste pozten bagaitu?
Txit askatasun osoarekin
erriak autatu zaitu;
zintzo gorde dan euskalzaleak
badaki nori jarraitu.

- 3/ Sasi-euskaldun batzuen ustez
atzeratua zerala?
Aizu, *Basarri*, ez uste gero
uste ortako gerala.
Zuk badakizu bekaizkeria
gizonen akats bat dala,
baiña denborak egia beti
garbitu izan duala.
- 4/ Gaur euskaldunok arkitzen gera
gizatasunetik maki,
maiz astindua izan dan batek
gauz onen berri badaki.
Naiz batzuentzat zure izena
oso gauz gutxi izaki,
Astoriako auteskundeak
etzuan au erabaki.
- 5/ Laiño artean dagon kai-argi
baten antzera or zaude,
ta gu euskera noiz ondatuko
bildurrez aidean gaude.
Diotenez gaur Euskalerrian
«profetak» ugari daude,
ala-ta guziz obe genduke
Basarri asko baleude.

6/ Bertsolaritza ia galduan
egon zan gure errian,
baiña zuk goxo zaindu zenduan,
ta ez garai ederrian.
Itxuak izan ezian gaude
au aitortu bearrian:
Beste *Basarri* bat ez dagola
jaiorik Euskalerrian.

7/ Erri zintzoak onartu zaitu,
au argi ta garbi dago,
zalantzik bazan auteskunde bat
baiño zer egokiago?
Nere aldetik Jaungoikoari
auxe eskatuaz nago:
beste *Basarri* bat bialtzeko
zu joan baiño lenago.

La Voz de España, 1973-I-19.

BARRABUN GARESTIAK ¹

- 1/ Berebiziko babarrun jana
egiñak gera lengoan,
baita «kintada» pagatu ere
oi dan gisan lenengoan.
Ustegabeko orraztu latza
artu degu oraingoan,
«presupuestoa» egin bear
lendabizi urrengoan.

- 2/ Sei lagun alkarganatu giñan
merke jateko asmuan,
iñor ez geunden toki txarrera
joango giñan susmuan;
baiña ezkalu batzuen gisan
erori gera amuan,
gaur kaskarrari atz egin bear
babak janaren damuan.

¹ Orain amabost bat urteko gertaera.

3/ Babak jan eta bertsoak bota,
auxe da egin deguna,
Aizkor-ondoko txabol batean
pasatu degu eguna.
Artzai bat baba-maneatzaille,
gutako baten laguna,
ori izan da guri orlako
ziria sartu diguna.

4/ Babagorri leun gozo askoa,
Brinkolatik eramana,
ardiki samur ta koipetsua
beste norbaitek emana.
Jakiak, noski, gureak ziran
ta artzaiarena lana,
baiña ez dakit ez ote degun
larrutik pagatu dana.

5/ Beste bi lagun exeri ziran
gurekin batera maian,
bazkalondoan bertsoak ere
izango ziran usaian.
Zerbait gozatu baziran ere
ain lagunarte alaian,
ez dakit nik zer esango zuten
ordaindutzeko garaian.

6/ Ardo, kafe, ta amabost kopa,
iru-lauen bat puruak,
ango gastuei artu dizkiet
gaiña eta inguruak.
Milla ta bosteun pezeta kendu
zizkigun artzai eruak,
oillotegitik txita orlaxe
eramaten du miruak.

7/ Artzai-txabolan babak jateko
lendik genduan promesa,
bertsoak lasai botatzeko an
zegolakoan babesa.
Besteren batek artuko balu
gure bide aldrebesa,
baietz damutu nai duanean
egingo diot trabesa.

8/ Artzaiak zion bertsoak beti
egin diotela grazi,
ark nai zuana gure kontura
parrez gizendu ta azi.
Agindutako lanak egin da
geuri ordaindu erazi,
asi ezkeror orla bear da
jornal ona irabazi.

- 9/ Babarrun jana egiñ ondoren
gelditu ziran ondarrak,
ez dakit nora izkutatzeko
lixto zeuden atzaparrak.
Zenbait basotan arkitzen dira
oraindik mutill azkarrak,
ea ba zerbait esnatzen geran
Legazpiko kaletarrak.
- 10/ Sobratu ziran ardiki danak,
mamiak eta ezurrak,
ondo kenduak dira, nik uste,
alperrik galdu bildurrak.
Ain ziran puska gozoak eta
aragi trontxo samurrak,
zer aparria egingo zuten
artzaiak eta zakurrak!
- 11/ Sabelak zerbait beteak baiña
patrikarak kixkurtuta,
ixtantpatian gelditu ziran
gure poz danak urtuta;
pekatu egin dunaren gisan,
artzai ori agurtuta,
bakoitza bere etxera umill
belarriak makurtuta.

12/ Alai ta lasai nai genduan guk
mendian egun bat pasa,
jan, edan eta bertso kantari
umorean geure kasa.
Artzai-txabolan au egitea
ez uste danik jolasa,
gaur beintzat ondo ustegabeen
estutu zaigu arnasa.

13/ Aizazu, artzai sukaldaria:
Nola zaude aĩn argala?
Ezagun da bai gure moduko
tontuak gutxi dirala.
Sinistu gero oraingo ontan
eskarmentatu gerala,
Aizkor-ondoko aize sanoak
ez du prezio makala.

JAKAKORTAJARENA JAUNARI

- 1/ Bertso batzuek ar zaizkidazu
o, Jakakortajarena.
Ikusi baitdet euskaldun danok
zuri zorretan gaudena.
Nigandik urrun badabil ere
zor-ordaintzeko almena,
bertsoak dira bertsolarien
saririk oparoena.

- 2/ Zuk «Matxin Burdin» biurtu dezu
len «Martin Fierro» zana,
eresi bikaiñ, zoragarria,
Argentinan maite dana.
Biotz zabalez bete dezu zuk
euskal arrazak esana,
Ama Euskerak eskertuko du
eskeiñi diozun lana.

3/ Argentinatik iritxia zait
atzo zure «Matxin Burdiñ»,
patxaraz, lasai irakurriaz
zerbait egurastu nadiñ.
Zure euskeran ez da lausorik,
or dana da zero urdiñ.
Danok zergaitik ez ote degu
jokatzen gaur zure berdiñ?

4/ Euskal lanetan badituzu zuk
arrigarrizko kemenak,
alde ontako idazle askok
tamalez ez dituztenak.
Ur loiturikan ez du eskeintzen
zure iturri gardenak,
ondo miatu dituzu noizbait
euskerak ditun almenak.

5/ Euskera gorde bear degula
diogu guk egunero
baiña bear dan arretarikan
ez degu izaten gero.
Obe genduke zure moduan
euskera maitatu bero;
gogoa artu bear da lana
txukun egite ezkerro.

6/ Bi bat milla itz euskerarenak
baditula gaztelerak?
Beste aldera dirudi emen
darabilkigun euskerak.
Badakizkitzu gure izkuntzak
berekin dauzkan aukerak,
moda berrien pipi-zulorik
ez du zure idazkerak.

7/ «Matxin Burdiñ»ek bazituala
bere euskera-kutsuak,
au nabarmentzen dute, nik uste,
aren esan mamitsuak;
ta ainbat aintza merezi badu
aiñ eresi ospetsuak,
gutxiagorik ez luke bear
zure lan garrantzitsuak.

8/ Arrigarriak dira guretzat
zuk artu dituzun lanak,
«Matxin Burdiñ»en esan guziak
orra euskeraz esanak.
Iñoren izkuntz-laguntzik gabe,
danak gurean emanak,
neke bildurrik ez du euskera
benetan maite duanak.

- 9/ Argentinatik eldu zaizkigu
aiñ ikasbide ederrak,
Jakakortajarena: nolatan
ez eman zuri eskerrak?
Zuk bai txukundu ederki asko
idazkeraren bazterrak!
Lan ontan asko ikusten dira
zure aldean alperrak.
- 10/ Euskalerrian entzuten dira
makiñatxobat deadar,
diran nasteri guziak emen
ia artu dute indar.
Bat ta bi baiño geiago gaude
gaur bildur batean dar-dar
biar euskera izango dala
gazteleraren mintzadar.
- 11/ Gaur beintzat onuntz zer ikasia
Argentinatikan dator,
oraiñaldian euskerarentzat
emen egiten du legor.
Mintzoeraren ezkutukiak
or miatzen dira jator,
esan diteke izkuntz onentzat
lur ohea dagola or.

12/ Orainaldian emen euskera
asi zaigu gazteleraz,
ezin diteke asko poztu bat
ikusten degun jokeraz;
baiña batzuek beren euskera
mintzatu arren erderaz,
zu asi zera gaztelerari
mintza-arazten euskeraz.

13/ Euskera gozo laztantzen dute
benetan maite dutenak,
baita arretaz ikasi ere.
naikoa ez dakitenak.
Gure artetik uxatu bitza
«Matxin Burdiñ»-en eztenak
saiatu gabe beren buruak
jakintsutzat dauzkatena.

El Diario Vasco, 1973-XI-14.

AU SALTSA!

- 1/ Entzuten diran berriak nola ez eman bati gaur miñik, ikusirikan ainbeste gizon basa-pixti beltz egiñik? Gizakiaren kontzientzia oraindik dago gordiñik: arabe eta judutarrak or gerraz aspertu eziñik.

- 2/ Toki askotan judutarrikan ez du ikusi nai iñork, zenbat astindu artu dituzten jakiñean gaude danok. Bizi izateko eskubidea badaukagula guztiok, au esan askok egiten dute, ezagutu ez dakit nork.

- 3/ Urteak dira España'tik
kanpora bota zirala.
Alemania'n zenbat garbitu?
la esan eziñala.
Esaten dute Rusia'n berriz
ezin ikusi dirala,
judutar erri orren animak
ez du arnasa makala!
- 4/ Moises beraren denboran ere
ez zuan palta nekerik,
naiz Ejipto'tik kanpora noizbait
nolabait irten askerik.
Beren baztartxo artara bildu
ta an ere ez pakerik,
erri bat nola ez aztoratu
orrenbeste okerkerik?
- 5/ Esan izan da judua dala
diru guzien biltoki,
premier dagona eskuratuaz
azpikeriz ta gozoki.
Judutar oiek ez zuten beti
jokatuko aiñ egoki,
baiña, gizonak, biziko bada,
bear bera bete toki.

6/ Noizbait erri bat moldatu zuten
bazter batera bildurik,
bai erri ori indartu ere
lanean bapo zaildurik.
Bere nortasun-alde badabill
ere gerran murgildurik,
berak egiña jaten duanak
ez du zertan ixildurik.

7/ Oraingo ontan gerran asiak
omen dira arabeak,
ta auek ere, uste dutenez,
ez arrazoirik gabeak.
«Petroleoa» deitzen diogun
indar-gai onen jabeak
esnatu dira, ta auek gure
istillu ta naigabeak!

8/ Milloika gizon lau-bosten mende,
ala izan da oitura,
atsegiñ danak batzuek bildu,
beartsuentzat trixtura.
Batzuek umill kameluetan
lanera basamortura,
besteak arro kotxian lasai
arabetarren kontura.

- 9/ Arabe oiek gairik al zuten
orrela gerran sartzeko,
arrolioa edukirikan
etxerako ta saltzeko?
Baiña au izan etsaien «tanke»
zakar oiek indartzeko;
orra nun lana egiten zuten
beren buruak galtzeko.
- 10/ Bi alderdiak oraindik arnas
omen dute, baiña doi-doi;
gerra batean arrokeririk
egiz ez bait-da izan oi.
Eziñ nezake juzgatu noski
or zeñek duan arrazoi,
baiña ez al da «tanke» zar oiek
gelditzeko aiña erdoi?
- 11/ Ejipto eta israeldarrak
gerran Sinai'ko partean,
erosotasun asko galtzeko
bildur geran bitartean.
Bi katu koxkor or odolusten
burruka zakar batean,
bi zakur aundik ez-ikusia
egiten duten artean.

12/ Aiñ ostikada larriak ditu
arnasik artu eziñak,
katuak beti atzapar-zorrotz,
naiz eta egon erkiñak.
Saltsa txar asko jarri oi ditu
iñor zapaltzeko griñak,
zakurretara iritxi dira
burrukaren zipriztiñak.

13/ Arabetarrak azaldu dira
oso gizon biurriak,
kupira gabe itxi dituzte
arrolio iturriak.
Isatsa zapaltzean ez ditu
katuak indar urriak,
amerikarrei artu dizkate
ederki asko neurriak.

14/ Orra txikiak, noizbait bederik,
aundien aurka jaikirik,
nai dan guzian ez da izaten
aiñ aukera egokirik.
Aulena ere indartsu nunbait
arrazoia edukirik,
gezur aundia ez da izango
ez dala etsai txikirik.

15/ Sortaldetar ta sartaldetarrak
kezkaren bat dutenean,
alkarri ortzak erakutsiaz
begiak ia ertenean,
baiña ederki alkar artuaz
komeni zaietenean,
gerrak piztu ta gerrak itzali
gogoa daukatenean.

16/ Or jaio beste errurik gabe
galdu zenbat guda-mutill,
ta bitartean su-pitzailleak
albotik begira trankill.
Gerra atera zutenak bizi,
gerrik nai ez zutenak ill,
txikiak beti bear ote du
aundiaren esku-makill?

17/ Aldebatera ala diote
gaurko gizonen egintzak,
baiña or-emen nabaitzen dira
askatasun-argi printzak.
Gizon artean sustraitu eta
indar artzean jakintzak,
txikiak ere jarriko ditu
egoki bere baldintzak.

18/ Zer gertatzen dan garbi esan det
bertsotan nere ustean,
ondorengoak jakiñ dezaten
gure denbora joatean
nolako saltsak armatzen ziran
munduan ta gizartean,
milla beatzireun irurogei ta
amairugarren urtean.

Goiz-Argi, 1973-XI-30.

BURUTAPENAK

- 1/ Egia bada irakurria
zenbait izparringietan,
zer istilluak izango diran
dirudun laterrietan!
Asmo zuzenak artuak dira
arabetar errietan
arrolioa zabaldutzeko
txiro diran tokietan,
kristau maiteok: Karidadea
au ez al da egietan? .

- 2/ Ai, zer jipoia eman diguten
arabe edo moroak!
Ondo dakite zertan dabilzan,
ez dira gizon eroak;
menpetasunak ondo zailduak
eta gudari beroak,
besteak nola errespetatu
esango digu geroak,
joan zaizkigu garai bateko
egun lasai ta zoroak.

- 3/ Orra maitasun-sermoi bikaiña
Ostegun Santu baiño len,
zuzenbidetik nola jokatu
ikusit degu nabarmen.
Lagun urkoa errespetatzen
asi gaitzen lenbailen,
itzak ez dute ezer balio,
obrak bear dira emen,
kristautasunez ere moroak
ditugu bestela gailen.
- 4/ Nork du munduan erlijio bat
guk degunaren berdiña?
Barruti ontan danak sartzeko
egin degu alegiña.
Obe genduke diogun gisan
gizon zuzenak bagiña,
toki onera erori zaigu
gure kristautasun piña,
moroetatik ikasi bear
Jesukristoren dotriña.
- 5/ Asko dutenei apur bat kendu,
gutxi dutenei emanaz,
ikasbidea ipiñi dute
moroak, uste detanez.
Tranpikeria indarra galtzen
asi da, ikusten danez,
bi milla urtez bagabiltz ere
«kristauak gera» esanez,
nabarmendu da zer gaitz daukagun:
Esan bai, baiña izan ez.

- 6/ Egi-jabeak gu gerala-ta
sortu degun iskamilla,
gure kideko ez diraneri
erakutsiaz makilla!
Kristo berriro jetxiko balitz
gizonen animen billa,
naiz Bera izan maixu bakarra,
uts-eziñ eta umilla,
denbora asko baiño lenago
izango luke nork illa.
- 7/ Esaten degu: «Au egin degu
eta bestea ere bai,
egia berriz gu gera eta
ez kontra egiñ nolana.
Guk esanera makurtu zaitez
ta izango gera anai».
Berdiñ pentsatzen ez duten danak
nola diran gure etsai,
lagun urkoa ondo zapaldu,
ta kontzientzia lasai.
- 8/ Beste guziak kristau biurtzen
gogor egin degu lana,
gorroto biziz oinperatuaz
beste fede bat zuana.
Agindu ori al degu Kristok
azken-apariz emana?
Naiz sutan erre gure modura
katolikua etzana,
«gu onak gera» esanarekiñ
egiña daukagu dana.

- 9/ Ai, zer odolak ixuri ziran
moroak zapaldu nairik!
Garai batean ez baigenduan
aintzat artu nai etsairik.
Berekoi eta zurrak ez dute
ezagututzen anairik;
baiña guk lengo erreztasunei
gaur eziñ egiñ usairik,
bai ote dago gu eskortara
sartuko gaitun artzairik?
- 10/ Gu izan gera aingeru berak
baiño aingeruagoak,
ta diran moro guziak baiño
askozaz santuagoak;
zer laguntasun izan ote du
gugandik bajuagoak?
Galdera zorrotz au egitera
bultz egiten dit gogoak:
Maometarrak ez ote dira
gu baiño kristauagoak?
- 11/ Al da dotriña zuzenagorik
Ebanjelioa baiño?
Oso argia ez naiz ni, baiña
ez det sumatu gaurdaiño.
Baiña gizonok arrotu gera,
nork daki zenbateraiño?
Kristautasuna komeni zaigun
erara aldatzeraiño,
Jainkoa gure esanetara
jarri nai izateraiño.

- 12/ Gu beziñ onik iñor ez dala,
auxe da gure ustea.
Onek dakarki zuzentasuna
orren aldebat uztea,
itz utsez gure bizitza bete,
premirik ez ikustea,
jartzen zaizkigun lege guziak
gerekoikeriz austea,
eta azkenik kontzientzia
aspertu ta zapuztea.
- 13/ Kristau maiteok: Zertan gabilitza?
On egiñaren pozean?
Ala ezeren ajolik gabe
danok ondasun eizean?
Ez gaitzala gu onek amildu
ondo gabeko leizean,
emen kontuak ez du luzitzen
oso denbora luzean,
ez degu noski mundua ontzen
geroni ondu ezean.
- 14/ Ez degu iñoiz pentsatu bear
gu aingeruak geranik,
gizónetikan eziñ pasatu
degun guzia emanik;
baiña obeak izan gindezke,
zergatik ez egiñ lanik?
Naiz ez sinistu itxu-itxuan
ameslarien esanik,
mundu obea izango degu
gizon obeak izanik.

15/ Gure mundu au omen daukagu
onelako aldarlean,
maitetasuna dabillelako
gugandik txit apartean.
Au entzutean pentsatu oi det
sarritan nere artean,
maitasun orrek ote dezaken
argi egiñ gizartean,
zuzentasuna lozorro ontan
arkitzen dan bitartean.

16/ Len uste osoz bizi ziranak
erlijio zuzenean,
zalantz artetik irten nai gaur ta
dabiltz eziñ irtenean,
zituzten arau eta lokarri
danak ia etenean.
Gizonak nola ez du izango
otzpenik sinismenean,
erakusleak ikasbiderik
ematen ez dutenean?

17/ Gizonarentzat bildurgarria
beti da illuntasuna,
orregatikan nai izaten du
bestien laguntasuna.
Denborarekiñ sustraitzen bada
munduan zuzentasuna,
beraren frutu eldu bezela
jaulkiko da maitasuna,
orra gizonak premizko duan
pakezko argitasuna.

18/ Eziñ ukatu, gure mundua
aldataz dijoala,
eta akatsak baditu ere
len geiago zituala;
gizona ere aldakuntz onen
emaitz bat bezela dala,
len etzitian argitasunak
gaur berekiñ dituala,
denborarekiñ aldakuntz orren
uzta jasoko duala.

Goiz-Argi, 1974-VIII-21; *La Voz de España*,
1974-VIII-25.

MADURA ITO EZ DEDIN

- 1/ Milla beatzireun irurogei ta
amabostgarren urtean,
pozik ematen ez dun berri bat
zabaldu gure artean:
Gipuzkoako Goiko Goierri
deitzen diogun partean
putzu aundi bat egin nai dala
bost erritxoren tartean.

- 2/ Zerain, Zegama, Idiazabal,
Mutiloa ta Segura,
oien artean ortxe daukagu
zoragarritzko madura.
Baiña berezko edertasun au
bota nai degu putzura.
Ainbesteraíño galdu al degu
gure pitxien ardura?

3/ Beti bai esan bear al zaio
edozeiñ asmo argali?
Madura pitxi onen dizdira
nai omen dute itzali.
Lendabiziko orko txoriak
uxatu eta bidali,
ori naikoa ez dala, gero
kabia urez estali.

4/ Bera izanik euskaldun asko
azi dituan baratza,
uraren iges aldegin bear,
au da erio garratza!
Zenbat familik ikusten duten
guziz etorkizun latza!
Beren bizitzak nola burutu
kendu ezkerro ardatza?

5/ Au ondamena ikusten det nik
nere begiak itxirik!
Ainbat baserri maite urpean
bertan usteltzen utzirik,
euskal kabi zan loretegia
pozoitu ta loiz jantzirik,
bular sendozko ama mardul bat
ezerezera jetxirik!

6/ Etorkizunak nola ez eman
kezka eta atsekabe,
bildur bagera ez izateko
ogibide baten jabe?
Famili asko biurtu bear
mixeriaren mirabe,
bost erri utzi ezkeron nundik
ta nora irtenik gabe.

7/ Zenbat euskaldun seme dabilzan
or gertatzen lanerako,
beren buruak ondo prestatzen
erriaren onerako,
ogibideak iritxi nairik
gizontzen diranerako,
ta itxaropen danak putzura
erori azkenerako.

8/ Presa egin da urez beteta
uzten badute modura,
negu partean izango da or
izotza eta landura;
udaran berriz elbiz beteta
ukullu baten modura.
Aurretik izan dezagun bada
ondorenaren ardura.

- 9/ Dioten gisan egiten bada
putzu aundi au onela,
urak jeixtean azalduko da
soildutako lur ustela,
bizi nai duten danak ondotik
uxatutzen dituela,
lurrik eman nai izan etzaion
gorputz ill batek bezela.
- 10/ Oria ibaia zikiñak jan du,
ez dago esan bearrik,
bere zauriak miaztutzeko
ez baitdu ia indarrik.
Bearkizunak banatu baiña
ez egiñ iñori parrik,
ori ez dute garbitu bear
goierritarrak bakarrik.
- 11/ Entzunak gera Oria erreka
garbitu naiak dirala,
baiña uste det goierritarren
lana bakarrik ez dala;
San Adriandik Orioraiño
jabe asko dituala,
ortik geiena artzen duanak
geiena eman dezala.

12/ Putzu onekiñ Oria ibaia
nai dutelako garbitu,
bost erritako nekazariak
lur gabe bear gelditu.
Guztien onak baserrirako
onura auek al ditu?
Utsa litzake toki geiago
Goierriak ez balitu.

13/ Toki geiago badaude baiña
ez da egin nai gasturik,
naiz bizitzari esiak jarri
izadia aldaturik.
Batzuk lasaitu, estu daudenak
zerbait geiago loturik,
gauzak aiñ errez konpontze onek
bai ote du meriturik?

14/ Zer garbitua badago baiña
zuzen eraso lanari,
zama guziak ezarri gabe
errurik ez duanari,
ta ez astindu bere kabia
pakean dagoanari,
ez dezaiogun iñoiz gizonik
saldu aurrerapenari.

15/ Gizonok asi gaitzen bada
laiñoetatikan jeixten,
beti onela ibilli gabe
alkarri bideak ixten.
Patxaraz zuzen pentsatu eta
badira gauzak bereizten,
ondamendi au egingo danik
ez det oraindik sinisten.

Goiz-Argi, 1975-III-12.

ALKAR GALDU BEARRA

- 1/ Itxaropenez betea eta sakona beziñ xamurra, gure Jainkoak Paradisoan zuzendu zigun agurra: «Azi zaitetze ta ugaritu, ta bete zazute lurra». Ori aztuta ez ote dabill oraingo gizon maltzurra?

- 2/ Gizon basati giza-jaleak bai omen dira Afrikan, alkarren bildur bizi diranak gogor egiñaz korrikan. Aurrerantzean izan ez dediñ olako istillurikan, botika bidez alkar antzutzen asi dira Amerikan.

- 3/ Iparraldeko Ameriketan,
naiz egon aberastuta,
kontzientziak ez ote daude
izugarri eskastuta?
Bolivia'tar asko egonik
mixeriak sakastuta,
jana bialtzen diete, baiña
antzugarriak nastuta.
- 4/ Berri onek nor poztu dezake?
Ni minberatu egiñ nau;
dana dutenen arrokeriak
oraindik ere badirau.
Lagun urkoa nola desegiñ
asmatzen egun eta gau,
jaunak, pensatzen jarrita ere,
egiñ egiñ bear da au!
- 5/ Amerikano oiek sarritan
arriturik utzi naute,
asmatu zuten demokraziak
badu amaika birtute;
baiña oraingo ontan begiak
zabalduko dizkigute,
nork zenbat seme-alaba izan
oiek agintzen al dute?

6/ Sud-Amerikan antzutasuna,
Vietnam'en eriotza,
or indartsuak makalarentzat
daukan sententzi zorrotza.
Odol otzean abarrikatu
ainbat bizitz ta jaiotza,
besterik gabe pentsatu utsak
estututzen du biotza.

7/ Goimallatik txit zaill da onartzen
zenbait iritzi desberdiñ,
ondo bagaude gure zerua
ikusai nai beti urdiñ.
Oztopo edo traba egingo
digunik sortu ez dediñ,
bat egiñ edo bestea egiñ
askotan oi zaigu berdiñ.

8/ Zer da sarritan gizon altsuen
irriparririk argiena?
Mendeko danak irentsitzeko
biderik egokiena.
Ez da gezurra eta oraintxe
ikusten da garbiena,
gizona dala gizonak duan
etsairikan aundiena.

- 9/ Amerikarrak nai dute izan
munduaren zuzendari,
kupira gabe neurri artuaz
mendekoen biziari;
baiña altsuen iritzi soillak
bear badu agintari,
egun lasaiak ez datozkio
mundu ontan gizonari.
- 10/ Esan diteke batzuek beintzat
beti goseak daudela,
mundu ontako jaki guziak
eurentzat nai dituztela;
eta jaleak bakandu beste
ametsik ez daukatela,
basapixtiak aldizka alkar
bakantzen duten bezela.
- 11/ Iparraldeko Amerika da
altsu eta diruduna,
nagusitzari eusteagaitik
askotan gerran jarduna.
Ingurukoak ezereztean
norbera guzialduna,
nola jartzen dan edozertara
diruak arrotzen duna!

12/ Emen denborak edozer gauzi
eman izan dio jira,
jarri bestela pixka batean
istoriari begira:
Nazio aundi eta altsuak
izandakoak ba-dira,
oraiñ daudenak errenditurik
beste askoren neurrira.

13/ Ez dakiñari erakutsi ta
sortu baztarretan lana,
lan orren bidez izan dezaten
jaiotakoak zer jana;
ez aztu iñoiz besteak ere
gu ainbestexe dirana,
asko geiago gabe orrekiñ
egiña legoke dana.

La Voz de España, 1975-VI-8 eta 9. *Goiz-Argi*,
1975-VI-25.

PELOTA

- 1/ Lenbizi sortu zan euskalduna
irten zanean mundura,
ikaratu zan begiratzean
kezkaz bere ingurura.
Baiña Jainkoak beti izan du
jaiotakoen ardura,
eta negarrez asi etzediñ
aiñ maite zuan aur ura,
pelota txiki polit bat egiñ
ta eman zion eskura.

- 2/ Euskaldun arek, jostallu ura
ikusirik eskuetan,
malkoen ordez alaitasuna
laster zuan begietan.
Pelota zuan lagun leiala
egunezko jolasetan,
pelota bere lagun kuttuna,
naiz lotan, naiz amesetan,
orrelakoxe maitasuna du
pelotak euskaldunetan.

- 3/ Mutilkoskortu ta artzantzara
joan zanean mendira,
berealaz zan pelotarekiñ
nun jolastuko begira.
Bordaren orma jo arazi ta
pelota lengo tokira,
orra pelota jolas bezela
nola irten zan argira.
Pelota leku danen guraso
artzai bordak ote dira?
- 4/ Lendabiziko pelotaria
onela asi zanean,
geiago ere izango ziran
begira aldamenean.
Beren pelotak nola moldatu
asiko ziran lanean,
artilhez bildu, larruz estali,
al zan era onenean;
orra pelota nun ugaltzen dan
gure lur euskaldunean.
- 5/ Ara euskaldun mutilkoskorak
jostalari alkaturik,
eziñ egonez ariñ jolasten
beren pelotak arturik,
ta abildadez danak berdiñak
etzirala oarturik,
berealaxe ziran alkarren
indarrak eziñ neurturik;
orra lenengoz jolasa zana
gero joku biurturik.

- 6/ Ainbat aldakuntz ditu gizonak
bere bizitz laburrean,
pelotak ere izanak ditu
bera sortu zan lurrean.
Beste joku bat azi ote da
orren baratz samurrean?
Pelotariak zergatik egon
munduaren bildurrean?
Zuriz jantzita jarri zaizkigu
erri danaren aurrean.
- 7/ Zeruetatik azi apal bat
jaulki zan baratz txikira,
ta oraiñ danok arritzen gera
bere frutuei begira.
Pelotazale sutsu askoak
gaur munduan nunai dira,
ta joku onen itzal bikaiñak
artua dauka lurbira,
ez len zituan lege garbiak
gerora nastu balira.
- 8/ Gure pelota joku au degu
aiñ iturri garbikua,
pelotarien galtz-alkandoren
zuria bezelakua,
ta gizatasun-ezaugarritzat
ipintzeko aiñakua,
euskaldun diran ta ez diranak
maitatzeko modukua,
irabazteko azpikerien
bearrik ez dan jokua.

- 9/ Eskuz jokatu edo txisteraz,
palaz edo remontean,
berdiñ pelotalekuan edo
nai badezu trinketean,
errebotean edo bestela
eliz-atari batean,
zorutzen gera neurketaren bat
ari dala ikustean,
pelota maite degulako guk
biotza bete-bete.
- 10/ Au joku alai zoragarria
emen sortu zitzaiguna,
gorputzak zaildu eta animak
ainbat argitzen dituna,
gizonki eta leial jokatzeko
erakutsitzen diguna,
erbestera bagera ere
ikusi dezakeguna,
Euskalerriko espiritua
munduan zabaldu duna.
- 11/ Makiñatxobat gizon badira
pelotak sona emanak,
asko mundutik joanak dira,
besteak bizi diranak;
gorputzak sendo gordetzearren
gizon garbiak izanak,
Euskalerriko kondairak iñoiz
aztuko ez dituanak,
bertso batzuen esi barruan
ez dago sartzerik danak.

12/ Gazte maiteok, entzun zazute
bertsolarien esana:
Gorputz sendoan anima garbi,
ori da komeni dana.
Jolas bat bada Euskalerrian
au lortu dezakeana,
narraskerien erdoiak kentzen
zintzo laguntzen duana,
zuen onean maita zazute
pelota joku laztana.

El Diario Vasco, 1975-VIII-10; *Goiz-Argi*, 1975-VIII-20.

GAZTEDIARI

- 1/ Orainaldian bertsoetara nola sarri biltzen geran, entzuleetan gazte gutxitxo ikusten degu aukeran. Pozgarri ez dan aldakuntza bat datorkigu izakeran: Ez ote gaude bertsolaritza galduko degun bezperan?

- 2/ Gazteak oso amets ausartak eurekiñ nola dituzten, modan pasatu gerala eta asi gu aldebat uzten. Ene maiteok: Baiña zergatik zerate ainbat zapuzten? Ez dakizute zuen kezkek gu zenbat kezkatzen gaituzten!

- 3/ Egia da bai, gaur egunean
lan dago artzen arnasa,
ainbat arazo burutzeari
ez derizkiot jolasa.
Orregatikan gaztearoa
ez bota denborapasa,
eskuetara gaitza besterik
ez baitdator berekasa.
- 4/ Mundu onetan naiz ta aundiak
beti gauzak erabaki,
gazte maiteok aurrerantzean
ez eman orren aitzaki.
Txikiak ere bere bideak
ondo dezazke ebaki;
gertatzen eta aundiak baiño
geiago baldin badaki.
- 5/ Guk esandako danak ez dira
izango sinistekoak,
baiña ez gera, guztiok beintzat,
oso asmo txarrekoak.
Gure ideak naiz eta izan
orain milla urtekoak,
askotxo dira beti gogoan
eduki bearrekoak.

6/ Bertsolariak nai dituzute
biurtu zuen mirabe
gaur dauzkatzuten zenbat arazo
azaldu ditzaten trebe.
Baiña au ere gertatu oi da
eta ez aztea obe:
Batzuentzako pozgarri dana
bestientzat atsekabe.

7/ Beraz ez al du bertsolaritzak
gaur bear lengo ostorik?
Iñauustean ez al lezaioke
sartu izurri gaiztorik?
Baiña zuek nai ez izan arren
artu lengo arrastorik,
kontuan izan ez dezutela
egingo danen gustorik.

8/ Gure artean txit gauz zailla da
danok berdiñ pentsatzea
eta bidean, uts egin gabe,
zuzen-zuzen ibiltzea;
orregatikan ez degu joko
beti erdian iltzea,
baiña, maiteok: Komeni al da
alkar desapiatzea?

9/ Zenbat naigabe menpetasunez
aspertu zeratelako,
premia badu, eta mundua
ondu nai dezutelako!
Baiña guk ere igaro bear
makiñabat orrelako,
zuen onean nai degun dana
egiñ eziñ degulako.

10/ Zalantzik gabe utsune asko
betetzen dira gaur lastoz,
zuen kezka ta eziñ egonak
gaitz onen sustraitik datoz.
Bear dira, ta gazte trebeak
guri laguntzera betoz,
arpegi eman dezaketanak
gizonki ta errespetoz.

11/ Gure jokera ezin diteke
oso-osorik onartu,
baiña ez gera guzialdunak,
arren zaitezte oartu,
eta zuek ez maitatzeraiño
ez gera beintzat zabartu,
geu lasai bizi izatearren
etzaituztegu bazartu.

12/ «Protesta» utsa ote da gero
askatasunaren giltza?
Ortik datorren onurak sarri
ez al du laguntzat gaitza?
Lenari eusten zaion artean
irabazian gabiltza,
gaur itxogiten duanak biar
jaso lezake emaitza.

13/ Esaten zaigu gure kantuak
dirala beti lengoak,
baiña ez degu entzuten nola
bear duten oraingoak.
Zuen gaiñ dago ta arduratu,
gazte biotz barrengoak:
Zar edo berri ez ditezela
gertatu azkenengoak.

14/ Beti ez beintzat txantxetan artu
bertsolarien esanak,
kontseju asko dituzte onak
beren izkeran emanak.
Egoki asko egingo ditu
gizontzean bere lanak,
aldez aurretik bear bezela
gertatzen jakiñ zuanak.

15/ Geroa zuen esku dago ta
arren ez oztu uskeriz,
oker guziak ez dago emen
zuzentzerik gogorkeriz.
Iñun ikasi-aukerik bada
eldu jakin-zalekeriz,
gutxi daudela, eta daudenak
ez baztatu nagikeriz.

16/ Eskuak bete lanez jazten du
bakoitza bere lekuan
era berriak sortu bearrak
lengoak zartutakuan.
Ez bazaudete zer ikusirik
ez daukazutelakuan,
eldu lanari, bada, bulartsu,
baiña gertatutakuan.

17/ Alderdi onik ez datorkigu
alkarren aurka jaikirik,
zarretan naiz ez ikusi zuek
aiñ jokera egokirik.
Pixkabat leku eman zazute
au kontuan edukirik:
Ez dala bere umeak maite
ez dituan izakirik.

18/ Lengo lege zar guzi-guziak
gazte maiteok ez ausi,
Euskalerriak ez dezaizuten
biar zorrotz eman auzi.
Geroari zer utzi eta ez
oraiñ arretaz ikusi,
bertsolaritza gurea baitda
bere akats eta guzi.

El Diario Vasco, 1973-VII-29; *Goiz-Argi*, 1973-VIII.
Legazpia urtekaria, 1973.

GIPUZKOARRAK ETA BIZKAIERA

- 1/ Beti bezela lengo batean
Goiz Argi ikusia naiz,
nere euskera-egarri ori
bertan asetzen baitdet maiz.
Bertsotarako gai bat eman dit
ta eldu nai diot garaiz,
biotz zabalez besarkatuaz
lendabizi Aurre-Apr aiz.

- 2/ Esango nuke kezka samiñ bat
daukazula biotzean,
guk bizkaiera jartzen degula
oso toki laiotzean.
Amarengandik gipuzkoera
entzun arren jaiotzean,
gure artean zuen izkera
ez dabill lur arrotzean.

- 3/ Gu pozik gaude gure izkera
ikasten dezutelako,
ta zu samiñez guri zuena
itsasten etzaigulako.
Izan diteke gipuzkoarrok
errez-zale geralako,
baiña ez noski guk bizkaiera
maitatzen ez degulako.
- 4/ Ez det esango zuen izkera
errez itsasten zaigunik,
ta ikasteko bear genduken
arreta badaukagunik;
baiña ez uste guk bizkaiera
arbuiaatu nai degunik.
Aurre-Apraiz: Ez zaiguzu esan
maite etzaituztegunik.
- 5/ Bizkaierarik gabe nork esan
euskerarikan badanik,
ainbat euskalki bikain baitditu
urteak zear emanik?
Giputz bat nola izan diteke
aintzat artzen ez duanik,
ain maite degun aritz zarraren
arnas bizia izanik?

6/ Bizkai izkera nola ez izan
danontzat maitagarria,
izanik orko anai jatorren
nortasun-ezaugarria,
euskera lore-sorta batean
biltzen duan lokarria,
ta bera pitxiz ornitzen duan
izkuntz beneragarria?

7/ Zeiñek ez ditu maite izango
Enbeitatarren bertsuak,
ainbat bizkaitar anai jatorren
esaera mamitsuak,
Abeletxeren usai gozozko
ipui alai, pipertsuak,
ta Aita Xanti Onaindiaren
idaz-lan garrantzitsuak?

8/ Euskalerriko literatura
artean aurtxo bat zala,
bizkaiera, zuk eman zenion
babesa eta itzala.
Zuri eskerrak munduratu zan
usai gozozko Kresala,
literatura ori txikitan
goxatu zuan magala!

- 9/ Bizkaitar anai batekiñ ere
ez nuke nai nik utsegiñ,
gure eskerrak irabazteko
lana sobre dute egiñ.
Txomiñ Agirrek eta Kresalak,
naiz bizkaieraz itzegiñ,
giputz artean erein dute, bai,
makiñatxobat atsegiñ.
- 10/ Amaika bider begiratu det
lilluraz Bizkai aldera,
Jaunak alboan ipiñi zigun
loretegi ederrera.
Nork ez maitatu or jaio eta
or azitzen dan euskera?
Orko loreen lore-eztia
degu bada bizkaiera.
- 11/ Euskaldun danok nola gatozen
aita bakarrarengandik,
gu geranera alde aundirik
eziñ egon zuengandik.
Euskera bera edaten degu
danok txiki-txikitandik,
agian bular banatatikan,
baiña ama batengandik.

12/ Ai, Aurre-Apr aiz: Giputzegatik
zergatik kezkatzen zera?
Sinistu zazu guk ez degula
arbuiatzen bizkaiera.
Zorionean zuek eta gu
odol batekoak gera,
ta anai batek maitatu bear
besteak duan izkera.

Goiz-Argi, 1975-IX.

EIZ ERREZA

1/ Legazpiñ pasatu da
komeri polita,
eziñ ixildu gera
algaraz asita;
txoratu ote geran
jarri naiz etsita,
galeper eizerako
beta iritxita.

2/ Soziedade edo
elkarte batean
apostu bat zerratu
zan larunbatean:
«Galeper arrapatzen
biar gu astean,
ogei bota baietz lau
lagunean artean».

3/ Jokatzea askotan
gauzik errezena,
baiña arronkak badu
bere ondorena:
«Au dek berriz ziria
sartu digutena,
granjatic ekartzea
diagu onena».

4/ Eiztariak badute
kopetan azala,
eta ez uste asko
estutu zirala.
Ezutela egingo
apostu makala,
baiña galeper granja
Bergaran bazala.

5/ Eiz erreza nun zego
azkar oartuta,
jo dute Bergarara
kotxean sartuta;
ta berriz Legazpira
erdi zakartuta,
ogeitamar galeper
kaiolan artuta.

6/ Bergaran ikusirik
jende asko parrez,
bidean jarri dira
errezelo txarrez;
aietxek soseatzen
etzegoen errez,
zenbat galeper zeuden
ikusi bearrez.

7/ Kaiola irikita
lau eiztari prestu,
galeperrak artuaz
eskupean estu;
preso dagonak ere
sosegurik eztu,
ta amar galeperrek
sasira igestu.

8/ «Au dek egin deguna!
Gu gaituk zozoak!
Nori burla egiña
baditek auzoak».
Ortik aurrerakoak
etziran gozoak,
entzutekoak ziran
ango errezoak.

9/ Ez dira aintzat artzen
zenbaiten esanak,
bentaja oiek ditu
eiztari izanak;
artean ordu gutxi
lagunak ziranak
inpernuko etsaiak
ziruditen danak.

10/ «Jaso ditzagun azkar
emendikan perrak,
pulamenturik ez dik
eiztari alperrak;
emen dauzkagun pixti
edo galeperrak
ikusteko zeuzkatek
mixeri ederrak».

11/ Kotxean sartu eta
ostera etxera,
galeper eizerako
zakurra artzera;
eskopeta ta guzi
belardi ertzera,
granjako galeperrak
tiroz botatzera.

12/ «Baldiñ batere buruz
nai bada jokatu,
galeperrak banaka
bearko askatu.»
Lenbizikoa etzan
aiñ gaizki portatu,
eta belar artean
azkar izkutatu.

13/ «Zakur abilla zeukat
bat bada abilla.
Galeperrak parregiñ?
Arraio zirtzilla!
Balio baldin badu
atera dedilla,
orrek artu bear dik
gaur perdigoï pill!»

14/ Zakurrak belarretan
sarturik muturra,
mokau batean jan du
galeper xamurra;
laister kendu zion, bai,
igestu bildurra.
Nolako eiztariak
alako zakurra.

15/ Beste bat bialtzean
zelai baztarrera,
zakurrak egin nai ba
bear zan arrera;
lau eiztariak berriz
tiroka aurrera,
baiña txoriak iges,
zakurra lurrera.

16/ «Baiña, jaunak: Au nola
diteke ordea?
Orain zakurrik gabe
au bakardadea!
Onek galdu dik beintzat
betiko kordea.
Mutillak: Au dek berriz
kalamidadea!»

17/ Orra gure gizonak
amorrus, lur jota,
eizetik orrelako
pranko badago ta.
Gaiñera galeperrak
zertarako bota?
Kaiola zoruan bi
an zeuden itota.

18/ «Galeperrak amasei
eta lau eiztari,
oraindik ere eiza
bazegok ugari;
gusto ematekotan
danok beatzari,
lau tokatzen zaizkiguk
gizon bakoitzari.

19/ Ez gaitzela asi
alkar zirikaka,
zertarako ibilli
or zalapartaka?
Galeperrei jaregiñ
banaka banaka,
eizean egiteko
guziok txandaka».

20/ Lenengo eiztaria
motela tiruan,
galeperra gorde da
toki seguruan.
«Eskopeta ez dek ik
jarri dixparuan:
Arlote arraiua:
Zer eukan buruan?

21/ Batek iges egin dik
kuriioso iri,
nola sartzen dizkitek
orrenbeste ziri?
Eiztari itxurarik
bat etzaik agiri,
zeiñ izan orrelako
kaikuen inbiri?»

22/ Oraiñ moda berri bat
digute eratu:
bakarrari jaregiñ
ta laurak tiratu;
amalau gizenenak
naiz ta aukeratu
an etzan galeper bat
ilda lurreratu.

23/ Azkena etzutela
botako etsita,
jarri dute ankatik
soka erantsita;
tiroa tiratzean
gelditzen utzita,
ark ere anka soka
erditik autsita.

24/ Berriro Bergarara
egon gabe lotan,
galeper apostua
irabaztekotan;
berriz ogei erosi
lengo granja ortan,
txukun asko lepoak
biurtuta bertan.

25/ Ez dago motiborik,
garbi esateko,
galeperren ondoren
mendira joateko;
granjetan or dauzkate
merke emateko:
ordaindu bi ta erdi,
eta bat jateko.

26/ Or batzuen azio
eta porrujorak,
izendatzera ez nau
lotzen derriorrak,
laurak izanagatik
eiztari koxkorak
gizon bezela danak
baitdira jatorrak.

LAZKAO TXIKI

- 1/ Zeru ta lurren jabeak bere
jakinduri sakonean
egun alaiak argitzen ditu
iñor premiz dagonean.
Alakoxe bat argitu zuan
guretzat zorionean,
Iztueta'tar Joxe Migel'i
arnas eman zionean.

- 2/ Egun aundiak etorri arren
aldizka Euskalerrira,
Lazkao Txiki jaio zan ura
aiñakoak gutxi dira.
Eguzki bera egon omen zan
gelditu eta begira
mirariren bat ba-zala eta
pozik Lazkaomendira.

3/ Joxe Migel'en sorleku apal
baserri Abalin Zarra,
zu bertsolari-kabitarako
zera munduan bakarra.
Euskal arrazak gorde ez ba'lu
sendo or bere giarra,
gorputz txikian animak nola
izan olako indarra?

4/ Oartzean ni Lazkao Txiki
danok deitzen dizugula,
esango nuke orretxegatik
ain kuttuna zaitugula;
eta pentsatu zuk bezelaxe
guk ere ba-dakigula
gauz piñak beti ontzi txikitan
gorde izan ditugula.

5/ Esan izan da gu euskaldunok
itz gutxikoak gerala,
baiña gizona bere egintzen
frutua izaten dala.
Maitasun guztiz jarri nai degu
guk zugan biotz zabala,
atsegin gozo izan dezazun
maitasun orren itzala.

6/ Aspalditxotik or zabilta zu
kantuan erririk-erri,
zeran ta dezun dana eskeintzen
ainbat jaialdi ederri.
Ederki asko ematen dezu
goxotasunaren berri,
bertsozko lorez zuk jantzi dezu
Gipuzkoa'ko Goierri.

7/ Bota dituzu amaika bertso
jostalari ta xuabe,
miñik gabeko piper bixia
daukazu zure mirabe;
ta izan arren guk ez daukagun
abildadearen jabe,
ementxe zabiltz gure artean
pantasi aundirik gabe.

8/ Lagun maitea: Ez ikaratu
gora igo zeralako.
Omenaldi au egiten zaizu
gurea zaitugulako.
Biotz auetan sartua zaude,
Joxe Migel, sekulako,
arrokeria nolakoa dan
jakin nai ez dezulako.

- 9/ Omen orduak ez ditzatzula
izan une nekosoak,
zuk ba-dakizu esiak nola
garaitzen ditun usoak.
Ar zaizkiguzu gure maitasun
ta gure biotz osoak,
laztan-egarriz ortxe dauzkatzu
danak zugana jasoak.
- 10/ Erriak zure bertsoak nola
sari eskatzen dituan,
omendu gabe ezin gindezke
zurekin egon kituan.
Donostia'n gu ikustean ez
egon ezin sinistuan,
ikusko dezu Euskalerrriak
zenbat maitatzen zaituan.
- 11/ Euskalerrriko Ipar ta Ego,
Sortalde edo Sartalde,
nai dun guztiak nai duanari
edozein tokitan galde:
Lazkao Txiki'k egin al duan
ezer erriaren alde.
Jaunari esker, guzti guztia
ez da gertatu debalde.

12/ Lazkao Txiki: Omen bikain bat
zeukazun irabazirik,
baiña guztiok ez gaude emen
doaiez berdin jantzirik,
ta kantatzeko nola ez detan
zuk bezelako grazirik
al dedantxoan eskeintzen dizut
paperean idatzirik.

Goiz-Argi, 1976-I-24; *La Voz de España*, 1976-I-25.

GOIZEKO OTOITZA

- 1/ Eskerrak, Jauna, Zuk ala naita
bart atsedean dedalako
ta egun berri baten argia
eskeintzen didazulako.
Ba-dakit grazi au ez dedala
merezia neukalako,
baizikan zure erruki orrek
mugarik ez dualako.

- 2/ Nere poz dana izan dedilla
norbaiteri on egiña,
au egitean betetzen bai-du
batek bere zeregiña.
Elburu auxe lortzen saiatu
nai nuke gaur alegiña,
goza dezadan kontzientziko
baretasun atsegiña.

- 3/ Zeruko Jauna: Begira zazu
pixkabat Euskalerrira,
garai batean oso osorik
ain zurea zan errira.
Gure artean egia eta
pakea urritu dira,
ta oraiñ gauzak ezin ekarri
bakoitza bere tokira.
- 4/ Ene Jainkoa: Gizarte ontan
au daukagu iskanbilla!
Zoritxarrean Zu baztertuta
asi giñan pake billa!
Guk Zugan degun fede santua
ez dago erabat illa,
zure argi ta laguntzarekin
berriz indartu dedilla!
- 5/ Uste genduan Zuri utzita
geu moldatuko giñala,
zure agindu aiek guretzat
oztopo utsak zirala.
Amets aiekin biotz asetzen
jardun arren egiñala,
ezin ukatu desoseguzko
leizera sartu gerala.

- 6/ Tamain ontako illuntasunik
izan ote da sekula?
Esan diteke bide guztiak
trabaz bete zaizkigula.
Tiñua galdu degu, ta orra
nora jo ez dakigula,
norbaitek argi egin premia
oraintxe bai daukagula!
- 7/ Gaur egun giza-sentimentuak
dauzkagu ain narrastuta,
gelditu gera batabestea
errespetatzen aztuta.
Nola ez gera gaizki biziko
eta gorrotoz sututa,
besteak berdin ez pentsatzea
ezin eraman degu-ta?
- 8/ Ondamendia eta negarra,
or burrukaren jazkuntzak,
zitalkerizko zapaldu naia,
gogorkerizko izkuntzak.
Euskalerria babestu beza,
Jauna, zerutar laguntzak,
alkar jan gabe egin ditzagun
bear diran aldakuntzak.

- 9/ Zuk emandako doaia ba'du
goikoak aginpidea,
zuzentasuna eskatutzeko
ba-dago eskubidea.
Serbitzu utsa bakarrik ba'da
guk degun eginpidea,
doaidun orrek eman dezala
lenbizi ikasbidea.
- 10/ Ezin ukatu fede kontuan
oso zabartu gerala,
uste bai-degu gidari gabe
moldatu gindezkeala;
baiña buruan sartu zaiguzu,
Jauna, nola edo ala,
gizonen gaindik dagoan Norbait
bear dala ta ba-dala.
- 11/ Ez gaitzatzula eskutik utzi,
galduak gera bestela,
gure etsaiak jarri kontuan
laguntzaz ba-zatozela.
«Nun ote dago oien Jainkoa?»
galdetu ez dezatela,
itun zarreko salmolariak
kantatu zuan bezela.

12/ Agintariak izan bezate
nagusi zuzentasuna,
errespetatu dezaten zintzo
mendekoen nortasuna;
eta guztion biotzetan Zuk
loretu gizatasuna,
birtute oien bidez lortzeko
erriaren osasuna.

Goiz-Argi, 1976-VIII-28.

AMODIOA

- 1/ Sugar bizizko amodio bat daukat animan sarturik, ezkutupean maitatzen dedan damatxo batek sorturik. Ixiltasunak ainbat naigabe dauzka nigan indarturik, nere biotza baretu nai det penak kantuz aitorturik.

- 2/ Amets gozoa ain askea da, bai ote dago lotzerik? Baiña maitasun-antsi guztiak ez daukagu asetzerik. Penari pena beste gauzarik bai al dago eskatzerik? Ainbesteraíño nai dizut eta ez daukat zu maitatzerik!

- 3/ Zure begiak iñoiz nigana
zuzentzen dituzunean,
ura zirrara eztiz betea
nabaitzen det barrenean!
Ta begi oiek nerietatik
aldegiten dutenean,
biotza ustu ta pozik gabe
sartzen naiz gau illunean.
- 4/ Maitagarririk ba'da neretzat
zu zera maitagarria,
senti nezazken amodio ta
zorionen iturria.
Ene kuttuna: Iruditzen zait
dala zure par-irria
loretxo baten egunsentiko
zabaltze miragarria.
- 5/ Ai! Ori gorputz aingeruzkoa,
liraiña bezin ariña!
Garbitasunak dituan grazi
eder danen imajiña.
Begiratzean gogorazten dit,
ain da egoki egiña,
lore artean goruntz jaikirik
bizi dan lirio fiña.

6/ Zure irudi maitagarria
ezin kendu det burutik,
antsi batean bizi naiz beti
noiz ikusiko gertutik.
Zure aingeru-zaindaritzara
etorri ba'nintz zerutik,
iñoiz ez nuan aldegingo nik,
maite, zure ingurutik.

7/ Ustez ba-dakit, ene maitea,
noiz ikusi zinduzkedan.
Zure abotsa entzun-egarriz
nola itxogiten dedan!
Baiña, ai!, zenbat bider ametsak
uts biurtutzen zaizkidan!
Maite gabeko utsune oiek
zein une tristeak diran!

8/ Sinis zaidazu, maite, neretzat
milla grazi dituzula,
zuk abots gozoz nere biotza
sarri esnatzen dezula,
maitekerien kutsu gabeko
maitasunez naukazula
zuri begira lilluraturik,
zuk ezer ez dakizula.

- 9/ Urruti dagon eguzkiari
ezin nezaioke eldu,
baiña nai nuke bere epelak
nazala beti epeldu.
Zu zeran lore ori ez bedi
ni naizen arte zimeldu,
edertasunik ikusi gabe
penaz en nadin goibeldu.
- 10/ Ez nekian bi eguzki berdin
Jaunak egin zituanik
ta aien txinpart arrosazkoak
zure ezpaiñak ziranik.
Nork esan neri mundu onetan
orrelakorik ez danik,
zure bi begi zoragarriak
eguzki bana izanik?
- 11/ Zure aotxo fiña ez al da
maitasun suaren labe?
Ai! Ni ba'nintza zuk or dauzkatzun
txinpart gozo oien jabe!
Etsipen batek ematen dizkit
makiñabat atsekabe:
Mundu au utzi bear nik zuri
musutxo bat eman gabe!

12/ Mitxeleta bat ba'nintz argiak
zorabiatu nauena,
zure parean, atsedeen gabe,
egaratsu nabillena,
zure kolkora erori eta
iltzea nuke onena,
maitasun onek or izan dezan
betirako atsedena.

13/ Ba'nu almena udazkeneko
aize epel biurtzeko,
biotz garbizko maitasunez zu
zeran guztia artzeko,
zure lepo ta beso ederrak
muxu gozoz estaltzeko,
zu besarkatu ta laztanduaz
maitasunez asetzeko!

14/ Ba-dakit beste kabi bateko
uxo txuria zerala,
nigandik nere armada baiño
urriñago zabiltzala;
baiña zu maite izateari
uzterik ez daukadala.
Beti onela bizi bear nik,
au da neretzat tamala!

15/ Zure muxu bat izanik, maite,
nere kutizi bakarra,
esan eziñak ateratzen dit
begietatik negarra.
Zer pena dedan zure gertuan
urruti bizi bearra,
zuk jakin gabe nola zeran zu
nik maite dedan izarra!

16/ Ba-dakit ere nere izarrak
bere zerua duana,
zeru ortako atsegiñaren
iturria zu zerana.
Poz bakarra det: Zeure zeruan
zu zoriontsu izana.
Zure zorion orixe bai-da
nik dedan zorion dana.

La Voz de España, 1979-IX-11 eta 12; 1976-X-3
eta 5; *Goiz-Argi*, 1976-IX-25.

Bilintx (1831-1876), Donosti'ko Aurrezki kutxa
Munizipalak argitaratutako liburuan, 241 orri-
aldean.

PENTSAKETAN

- 1/ Udazkeneko egun aizetsu,
argi, epel, biguiñetan,
barruraturik Euskalerriko
baso mardul, bikaiñetan,
eta patxaran exeritzean
pago zar baten zaiñetan,
ai!, zein en laztan zoragarriak
artzen diran ezpaiñetan!
Ustegabeaen murgiltzen da bat
gozozko atsegiñetan.

- 2/ Basoarteko pake santuak
nork esan zer grazi duan?
Ba-danik ere oartu gabe
bizi gera gaur munduan.
Lagun bakartzat bakardadea
arturik gure onduan,
izadiaren abots xamurra
entzuten degun orduan,
sosegua ta atsedena or
eskuz eltzeko moduan.

- 3/ Bizkar emanaz pentsatuzeko
zenbait aukera ederri,
gure bizitzan eltzen diogu
amaika bide okerri;
premirik gabe ekin ere bai
makiñabat lan alperri;
atsegin billa menditik urriñ
or gabiltz erririk-erri,
eta askotan ez dakigu guk
geure buruaren berri.
- 4/ Osto artetik begiraturik
urdin dagoan zerura,
edo orbelak negu aurretik
babestu duan zorura;
orobat azi biurtu diran
loretxoen ingurura,
ikusirikan Izadiaren
mirarizko egitura,
pentsamentuak emen amilka
etortzen dira burura.
- 5/ Eguzki berak ez dauka orain
udaran zuan dizdira,
ostu mardul da eder aiek gaur
orbel besterik ez dira.
Pago bikaiñak orra etorri
len ziranaren erdira;
lore politak jetxiarren ain
egoera erorira,
bizi berria nork sortu gauzak
onelaxe ezpalira?

- 6/ Begira aritz bat sortu dedin
desegin dan ezcurrari,
edo txart egin eta erne dan
orbelpoko aziari;
txori bat jaio dalako utsik
dagon arrautz-azalari,
pago lerdenen ongarrria dan
pagozar eroriari,
zer ausnartua nai duan arek
begira Izadiari.
- 7/ Nola diteke bat ez arritu
gauzak onela izanik?
Izadi onek arau juxtuak
dauzka norbaitek emanik.
Ezertxo ere ez da ikusten
zeregiñik ez duanik,
sortu zanetik amaitu arte
bidetik ez dijoanik,
gauz bat ez dago inguruko
serbitzurako ez danik.
- 8/ Pizti arteko arauak dira
itxuraz beldurgarriak,
baiña norbaiten jakindurian
onerako ezarriak.
Oietako bat estu artzean
janberraren larriak,
erruki beste piztietako
gaixo eta elbarriak,
orra batzuek beste batzuen
serbitzurako jarriak.

9/ Muxarrak eta kattagorriak
mantentzen dira ezkurrez,
azari eta otsoak berriz
aragiz eta ezurrez;
zenbait uso ta txori or dabiltz
sapelatzaren beldurrez,
edozein piztik ere nundik jan
nola esan zaion aurrez,
bere kideko piztirik ez du
ilko gorroto maltzurrez.

10/ Nola mendiak pasa ondoren
aurkitzen diran lur lauak,
era berean egun bakoitza
estalzen du bere gauak.
Baiña gizaki baten aotik
entzuten diran birauak!
Pena da, baiña aitortu bear
o, biotzeko kristauak,
gizonak ez nai errespetatu
eman zaizkion arauak.

11 «Alkar maitatu ezazutela»
gizonari bai agindu,
baiña mandatu xamur onekin
gizakiak zer egin du?
Erruki gabe bere anaiak
menderatzen alegindu;
beren gorputzak abarrikatu
eta animak samindu,
izaki onen gaiztakeriak
munduan zeïnek berdindu?

- 12/ Piztiak beste ilda jaten du,
ori da dagokiona,
baiña artarako jarria dana,
ez berak derizkiona.
Emen gizona bakarrik degu
gorrotoa dariona,
bere eskuan edukiarren
pakea ta zoriona,
kupira gabe ezerezten du
traba egiten diona.
- 13/ Bat edo bestek esan lezake:
«danok ez gera berdiñak»,
gizaki onak ere badira
makiñabat on egiñak;
baiña begira pikardirako
berekin dituan griñak:
gerra, zigortze, oiñaztatzeak...
ez gaiztakeri ariñak,
orra or nundik sortu zaizkidan
ain pentsamentu gordiñak.
- 14/ Solas auetan ari nintzala
atzo Izadiarekin,
galdetu zidan: Itxaropenik
ez al da gizonarekin?
Aztu al zera maitatzeko dun
almen bereziarekin?
Erantzun nion: Ez nintzake ni
beldur gizakiarekin,
gorrotatzeko almena ere
izan ez balu berekin.

XALBADOR IL DA!

1/ Milla beatzireun irurogei ta
amaseigarren urtea,
azaroaren zazpigarrengoz
zein illunabar tristea!
Loiola erri-irradi bidez
artu nuan albistea:
«Seirak ta laurden aldean il da
gure Xalbador maitea».

2/ Nola diteke? Atzo ez al zan
ari bertsotan bera or?
Ez det sinistu nai berri ori,
ta berekin bat ez nator.
Baiña Loiola'k esan du eta
ortik gezurrik ez dator,
min artzen baldin ba'dezu ere
il da, bai, il da Xalbador.

3/ Ainbeste anai zu maitatzen or
zenduzkan aldamenean,
Urepel zure sorterrri eder,
argi eta laztanean.
Zure gorantzak apal entzuten
zeunden omen-egunean,
maitasun uts zan zure biotzak
ler egin du azkenean.

4/ Ni orduantxe oartu nintzan
berri min au entzutean,
Euskalerrria nola illunik
egon zan istanpatean;
au jakin baiño ordu pare bat
lenago, nere ustean,
nunbait Xalbador lur au utzita
zeruratu bitartean.

5/ Munduan pena mingotzik ba'da
auxe bai dala mingotza!
Ain maltzurra da lapur antzera
datorkigun eriotza.
Maitetasuna ainbesteraiño
maitatzen zuan biotza,
ondo kuttuna genduan, baiña
or utzi digu illotza.

- 6/ Jainko maitea: Euskalerrria
daukazu penaz beterik,
negar zotiñak eta malkoak
barruan ezin gorderik.
Maite dan bati penarik gabe
ez dago joaten uzterik,
ez al ziteken Xalbador egon
pixkabatean bederik?
- 7/ Xalbador ta gu zoriontsuak
giñan elkarren onduan,
ta joan bear ba'zuan ere
etzegoan beranduan;
bestela ere naiko naigabe
ba-dabilkigu munduan.
Ai, Jaun maitea: trago au ere
orain bear al genduan?
- 8/ Euskalerrria uzteko zuri
zerk egin ote dizu bultz?
Zalantzik gabe, zu maitasunak
zaramazki orain goruntz.
Etsi dezagun pixkabatean
gurekin zauzkagu gorputz,
baiña biotzak esaten digu
laister gerala umezurtz.

9/ Zure erria serbitu dezu
ain bizkor eta ain umil,
sarriegitan ikusi gera
zu nekean da gu trankil;
nere burutik kezka garratz bat
kendu eziñean nabil:
geitxo eskatu, ta azkenean
geuk ez ote zaitugun il.

10/ Agur, Xalbador. Bizitz guztian
ez naiz aztuko zurekin,
nik zer geiago egin nezake
saiatuarren alegin?
Naiko negarra, nere biotza
pixkabat arindu dedin,
nai nuke baiña besterik ezer
gaur beintzat ezin det egin.

La Voz de España, 1976-XI-17.

JOXE LIZASO'RI

1 Joxe Lizaso, zugana nator
Legazpi'tik Azpeiti'ra,
maitasunaren egotan ortik
joateko Donosti'ra,
gure biotzak zure oiñetan
jarriko diran tokira,
jatortasuna omenduko dan
orduak eldu baitira.

2/ Denbora joan egiten dala,
auxe da gauza jakiña,
eta egintzak emen gelditu;
beste egi bat berdiña.
Euskalerrriak orra azaldu
garbi bere maite-miña,
aitortu eta eskertuaz zuk
erriagatik egiña.

3/ Zuk ingurura zabaltzen dezu
girorikan epelena,
lagun gozoa zera benetan,
ta gizonik zabalena;
sendotasunez ornitua ta
zeu denetan apalena,
Izarraitz magal ortan sortu dan
lorerikan mardulena.

4/ Joxe maitea, jator izanak
egin zaitu zu ain aundi,
euskal arrazak dituan zenbait
birtute onen irudi.
Zu ikustean mikrofono bat
aurrean dezula, geldi,
gizatasuna ber-bera antxe
dagola zutik dirudi.

5/ Euskalerria zeñek maite du
zuk maite dezun ainbeste?
Gure tristurak zure biotza
laister jartzen dute triste.
Omenaldi bat eskeñiarren
zaitugulako ain maite,
batere zorrik ez diguzu-ta,
Joxe, lasai egon zaite.

6/ Nik beintzat gizon zuzentzat zauzkat,
maite baitez egia,
gezurra zorrotz salatzen dezu,
ortan ba-dezu begia.
Sentimentuak azaltzen ere
etzera oso nagia,
kopeta illun samarra dezu,
baiña bai biotz argia.

7/ Azpeiti'k seme jator bat ba-du
berari dagokionez,
eta gaiñera estimatua
jende guztiak dionez.
Ez naiz arritzen zure erriak
ikusteaz begi onez,
lenaz gaiñera zu jaiotzean
osatu baizan gizonez.

8/ Nik ondo dakit zure biotza
liperzalea ez dala,
zure iñori poz eman naia
ere ez dala makala.
Eta sinistu nik beste baten
aotik entzun nuala,
eskubiz eman oi dezula zuk
ezkerrak ez dakiala.

- 9/ Bertsolari ta gizon bezela
dezu doai bat aparta,
agintarien aurrean ere
egiesale ausarta.
Gertu askotik ikusia naiz
zure bertso zirtizarta,
egi mardulei bulartsu asko
ateraziaz txinparta.
- 10/ Zure etxean izana naiz ni
bear nun bezin sarririk,
an sartzen danak ez du nabaitzen
sekula plaki larririk.
Zure emazte Juli ta biok,
bera serbitzen jarririk,
ateratzean ez du izango
gose eta egarririk.
- 11/ Nere omena ere ar zazu,
Joxe Lizaso laztana,
ez det ukatzen orrenbeste zor
ba-dedala nik zugana.
Nola zeran zu neri amaika
mesede merke emana,
arro-puntu bat daukat nerekin:
zure laguna izana.

12/ Bertso batzuek eman dizkizut
nola edo alakoak,
jakiña zegon zenbat zezaken
egin ni bezelakoak.
Artu itzazu, nola dituzun
biotzez egindakoak.
Agur, Joxe, ta urte askoan
gorde zaitzala Jainkoak!

La Voz de España, 1977-I-9 eta 11.

NEGUA

1/ Elur mardulak zabalduzuean
lurrean bere maindira,
negu latzaren bildurrik gabe
igorik goiko mendira,
jarri gaitezen une batean
lau aldetara begira,
gure oiñetan zuriz jantzirik
daukagun Euskalerrira,
maitasuna ta itxaropena
gureganatuko dira.

2/ Mendi ta zelai zuriz jantzirik,
zuri ibar ta oianak,
zuri basoak, zuri erriak,
soro ta otari danak.
Jantzi zuria berea ba'du
berez garbia izanak,
aitortu bear garbitasuna
batere maite duanak,
maitasun-miña sortzen duala
gure aberri laztanak.

- 3/ Erru gabeko jantzi zuria
orra lurrari musuka,
baiña soiñeko danak bezela
alderantzia ba-dauka.
Mendi artean aize zakarra
asten danean txistuka,
zenbat izaki elur azpitik
bizinaiari ojuka,
izateari eusteagatik
ekaitzarekin burruka.
- 4/ Bildurgarriak dira benetan
aldagoiaren orruak,
indarra beren esku dutenak
izan oi dira arruak.
Errukarriak elur azpian
bizi diran xomorruak,
ainbeste zigor, galdetu gabe,
an zeinek dauzkan erruak,
ez dira beti lasai egongo
izaki oien barruak.
- 5/ Zigor artzea edozeiñentzat
izanik bildurgarria,
nork esan zer dan bizinaiari
eusteak duan larria?
Dan ura izan nai, besterikan ez,
eta gaiñetik arria;
iñundik ere irterarik ez,
au da ikaragarria!
Onela bizi dan izakia
ez al da errukarria?

- 6/ Mendi gaiñetan nagusitzean
neguko gogortasuna,
ibarretara jetxi bearra,
nai ba'da epeltasuna.
Baiña an ere arditxoentzat
urruti gozotasuna;
supritu bear eskortetako
esien lotutasuna,
egun sentiro gogoratuaz
mendiko askatasuna.
- 7/ Baiturik dagon baten egunak
ez dira oso laburrak,
zer suprikizun daukan berekin
neguko lege maltzurak!
Esi barruan menderaturik
dauden ardien bildurrak,
beren buruen jabe izan nai,
utsa ba'lira lapurrak,
baiña irtetzen asten ba'dira
laister dituzte zakurrak.
- 8/ Ez ikaratu, artaldetxoa,
naiz zakurrak egin zaunka,
zuek mendean eduki nairik
alperrik dabiltz muturka.
Bere jabea duan talde bat
nork irentsiko du orzka?
Urbildu danok alkarrengana
ta ekin batera aurka,
estualdian alkartasunak
indar aundia baitauka.

- 9/ Ez galdu, arren, itxaropenik,
ene artalde maitea,
asko baiño len zabalduko da
eskorta orren atea.
Zakurrek ere izango dute
motz lotzen duan katea,
udaberria ba-datorkizu
askatasunez betea,
beti gorde al izan dezazun
zeure jabe izatea.
- 10/ Artaldetxoa: zer eramana
ba-dezu negu otzean,
esi barruko lege azpian
mendetasun zorrotzean.
Euskalerrria lurmendu eta
mendi-goira igotzean,
gaur arantz diran elorri latzak
udaberriz loratzean,
ikusko dezu nolako poza
sortzen zaizun biotzean.
- 11/ Zuen eskorta orren atea
irikitzean argiak,
arditxo maite, biotzekuok,
ez izan gero nagiak;
etzaitzatela orduan lotu
etsitasun geiegiak,
mendian or zai nun dauzkatzuten,
zabaldtu ondo begiak,
eguzki gorri, lore txuriak
eta zelai orlegiak.

La Voz de España, 1977-I-27 eta 28. Goiz-Argi,
1977-II-5.

ARANTZAZU'N

- 1/ Ama maitea: Nik etzaitut zu
ikusi aspalditxoan
argi artean irri-parrezka
lenagoko zerutxoan.
Baiña oraindik ere or zaude
gure zai arantzatxoan,
eta zurekin itzegin nai det
libre detan unetxoan.

- 2/ Esango dezu: «Zu neregana?
Auxe da arritzekoa!»
Maitatzekorik bat baldin ba'da
ama da maitatzekoa;
eta premia sarri izanik
zertxobait eskatzekoa,
nola ez nintzan zugaratuko,
Amatxo biotzekoa?

3/ Lenago sarri etortzen giñan
zugana Arantzazu'ra,
gure animak baretzen ziran
pake-iturri santura.
Gaur zenbat aldiz galdetzen dezu
begiraturik mundura:
«Nun ote dago garai bateko
nere Euskalerra ura?»

4/ Orainaldian naiko urruti
dabil bai, Ama, zugandik,
argi pixkabat nai luke eta
ezin lortu du inñundik.
Ain astindu latz eta gogorak
arturik etsaiengandik,
arnas estutan egon da baiña
bizi da beintzat oraindik.

5/ Guztien indar bilduak dira
edozein erriren abe,
alkar artuaz antolatuak,
inñun pitzaturik gabe.
Bakoitza bere aldetik gabiltz
eta zenbat atsekabe?
Ondo kostata irauten degu
orain geranaren jabe.

- 6/ Geientsuenok nola geran gu
bata bestien juezak,
elburu bati lotuta jartzen
ez gera oso errezak.
Borrokalari bakarti onak,
batera biltzen nekezak,
orra zer duan danok batera
argi billa joan ezak.
- 7/ Noiz ikasiko ote degu guk
amor ematen elkarri,
leialtasunez erabakiaz
danok zer degun egarri?
Sakabanatu eta zer dagon
bear diogu igarri:
Gure buruak gorputz ta anima
besteren eskutan jarri.
- 8/ Ama: Entzungor ez egin gure
dei estu ta larriari,
argi egin zuk sortzen ari dan
belaunaldi berriari,
aurpegi eman dezaion gaurko
aro beldurgarriari,
komeni zaion bide zuzena
eskeintzeko erriari.

- 9/ Ez gaitzala gu iñoiz itxutu
zorrotasun geiegiak,
aukera on bat egin dezagun
zabaldu gure begiak.
Euskalerrriak premizko ditu
gazte prestu ta argiak,
oriengandik sortu ditezen
biarko buruzagiak.
- 10/ Eskubideak ta justizia
ez dira noski kutizi,
baiña oraingo gizarte ontan
au ezin danak bereizi.
Gureak diran lege zar aiek
biurtu guri lenbizi,
eta bakoitzak pentsatuko du
zer egin da nola bizi.
- 11/ Bizi-giroa gogorkerizko
gorrotoak pozoitzean,
au pena nere Euskalerrria
nola dagon oroitzean!
Ainbat naigabek nere biotza
mintzen duten bakoitzean,
ezinbestean babes bakarra
aurkitzen det otoitzean.

12/ Nere biotza ustu det, Ama,
zure biotz zabalean,
triste aldian zer egingo du
batek bere argalean?
Euskalerria sumiñik dago
ta ar zazu magalean,
goxatu dedin zure maitasun
mardul orren itzalean.

Goiz-Argi, 1977-IV-16.

NAPARROA

1/ O, Naparroa! Ar zaizkidazu
nere kantu ta bertsuak,
ta oien bidez dijoazkitzun
maitasun-laztan sutsuak,
agurtu nairik zure mendi ta
baso eder ostotsuak,
zure erritxo lorez jantziak,
ordeka eguzkitsuak,
soro ta zelai, bide, ibai ta
orko jende bulartsuak.

2/ Zure errixka zoragarriak
zer maitagarriak diran!
Nola esan nik zenbateraiño
atsegingarri zaizkidan?
Arri landuzko etxe ermoak
bata bestien segiran,
baso mardulak gertu askoan
ta soro bikaiñak jiran.
Gure aitona kementsu aien
kabiak, orra zer ziran.

- 3/ Orainaldian, zuretzat ere
badira zenbait eraso,
dakitelako nola zeran zu
Euskal Errien arbaso.
Baña etzaitez, arren, makurtu
baizik aurpegia jaso:
nai duten dana esan bezate,
ez egin iñori kaso,
eta oartu zerala gure
senide eta guraso.
- 4/ Kondaira zear ikusi dezu
amaika istillu gorri,
aurpegi eman bearrez zenbait
etsai maltzur ta gogorri.
Ai, Naparroa! Eutsi zuk dezun
nortasun bulartsu orri;
berdin-berdin da gu orruntz joan
edo zu onuntz etorri,
zu zeralako euskotar denon
iturburu ta jatorri.
- 5/ Or dabilta, zu Euskalerritik
aldebateratu naiez;
baiña Naparro ez ikaratzen
duda-mudako etsaiez.
«Ni Euskadi naiz» dio indartsu
eta irrintzi alaiez.
«Bizkai, Araba ta Gipuzkoa
beterik dauzkat anaiez,
naiz albokoak egi garbi au
sekulan aitortu nai ez».

6/ Zati bat kendu zizuten eta
bota Bidaso'z aruntza;
baña bizirik daude an zure
oiturak eta izkuntza.
Oraindik ez da igartu ortik
aruntz luzatzen dan untza;
Xuberotar da Lapurtarrakin
Benapartarrak onuntza
noiznai datoz, ta etzaitzu palta
ango semeen laguntza.

7/ Aspaldi ontan degun burruka
ez da oraindik bukatu,
emen iñork nai ez dualako
Euskalerrria puskatu.
Norbere lurra maitatutzea
ez ba'da, beintzat, pekatu,
eta euskaldun izate auxe
nai ez ba'degu trukatu,
Naparroa'ri euskaltasuna
iñola ezin ukatu.

8/ Guraso bati maitasuna ta
itzala bear zaiola;
seme on batek badaki ori
ukatzerik ez dagola.
Egi garbia ez dago berriz
ezeztatzerik iñola,
nola Gernika'n degun guztiok
ain maite degun Arbola,
alaxe degu gure zaiñetan
Naparroa'ren odola.

- 9/ Euskaldun bezin napar zan Aitor,
zer esanik ez Amaia;
Naparroa, zu zera, Euskadi
sortzeko artu zan gaia;
zazpi probintzi besarkatuaz
bat egin zitun uzaia;
buru-jabetza galdu gaberik
zaindu gaituzun artzaia;
orra zergatik degun zenbaiten
gu sakabanatu naia.
- 10/ Arrotz maitale zintzoa zera,
ostalari serbitzala,
zuretzat ez da erbestekorik,
ain dezu biotz zabala.
Duintasunaren ispillu garbi,
ausarta bezin apala;
daukazunetik eman-zalea,
lagun bezela leiala.
Ai, Naparroa! Sinistu gure
anai kutuna zerala.
- 11/ Aragoi'tikan Baztan'era, ta
Auñamendi'tik Ebro'ra
joan da ere, ez gera irten
gure etxetik iñora,
baña bai sartu maite gaituen
Amaren kolko gozora.
Zure lur garbi, zoragarria,
datorkit orain gogora:
duan dizdira bai ote luke
Euskalerriaz kanpora?

12/ Naparroa ta Euskalerra
bereizten dituztenean,
iruditzen zait ez dabiltzala
oso bide zuzenean.
Geure etxean arkitzen gera
eta ez iñorenean;
gaiñontzekoak ez bitez asi
agintzen besterenean,
pake santuan bizi gaitezen
alkarren aldamenean.

Principe de Viana, 1978, I-II-III.

ZATITURIK

- 1/ Gaur ere naiko berri illunak,
eta ez oso urrundik,
aspaldi ontan bestelakorik
zabaltzen al da emendik?
Bilbon nabarmen ikusi degu
beste gauz askoren gaindik,
alkar artzeko abildadea
palta degula oraindik.

- 2/ Itxura danez danok nai degu
Euzkadi bat askatua,
baiña oraindik geurekin degu
aspaldiko pekatua;
gure ideak ez dauzkanari
ezer eziñ barkatua,
erri bezela ondatzen gaitun
seta madarikatua.

- 3/ Danok agindu naiak sortzen du
makiñatxobat istillu,
begira gure errietako
kaleetan zenbat trillu.
Amaika bider biurtzen gera
gure etsaien jostailu,
txit errez izan gindezkeanak
auzokoentzat ispillu.
- 4/ Gaur arrazoiak gutxi balio,
auxe daukagu gaitz txarra,
Euskalerrian onek sortzen du
burruka egin bearra;
eta ez aztu batasunean
dagola gure indarra,
bere bideak urratzeko lañ
ez bait-da gizon bakarra.
- 5/ Zotz mordoxka bat autsi bearrez
iñoiz gertatzen bazera,
banaka artuz daukazu ori
errez egiteko era;
baiña indarrez nai izan arren
zotzak ekarri menpera,
sorta batean bilduta ezetz
puskatu danak batera!

6/ Errian ez du pakerik jarri
iñoiz geiegikeriak,
gure artean kaltea pranko
egin du jauntxokeriak;
eta arrazoi izan lezake
aldizka gogorkeriak,
baiña ez al du gaiña artua
gaur bidegabekeriak?

7/ Morrontz batetik irten eziñik
egonagatik negarrez,
alkarri esku emateko laiñ
ez gera gu, zoritxarrez.
Itxumenean eror-zorian
seta gaiztoen indarrez,
oartu gabe Madrid aldetik
nola dauden guri parrez.

8/ Ainbeste neke kostan ondoren
erri txikia izana,
alkar zapaltzen asten bagera
galdu genezake dana;
eta besteak errespetatzen
egin bear degu lana,
besteak ere errespetoa
izan dezaten gugana.

9/ Pentsatzen dana azaltze ori
bakoitzarena da baiña,
indar galtzea besterik ez da
zatiketaren ordaiña.
Alkartasunak artuko balu
gure erri ontan gaiña,
orduante bai giñakela gu
beste edozein dan aiña.

10/ Agertu-nai ta agindu naiak
ez gaitzan danok ondatu,
pake santuak izan dezala
Euzkadin bere ostatu,
askatasuna neurritz artuta
besteak errespetatu,
onak gerala erakusteko
iñor ez txartzat tratatu.

La Voz de España, 1978-XI-19.

LEGAZPI'KO ERRETOREA

- 1/ Oraiñaldian Legazpi ontan
dira albiste alaiak,
aurten ditula Don Antonio'k
urrezko apaiz eztaiak.
Ar bitza bada gure zorion,
omen eta ongi-naiak,
ainbeste urtez gure animak
zaindu dituan artzaiak.
- 2/ Berrogeitamar urte apaiztzan,
bai errez esaten dala,
ikusirik gu denbora ontan
asko zabartu gerala.
Jakiñagatik erretoretza
utzirik bizi zerala,
oraindik ere nabarmen dago
Legazpi'n zure itzala.

3/ Gustora asko entzunak gera
zure prediku sakonak,
ainbeste egi zure moduan
nola xeetu gizonak?

Ez digu ezer galdu erazi
zuri entzuten egonak,
frutu gabeak ezin izan zuk
ereindako azi onak.

4/ Nik ez det uste ikasteari
iñoiz utzi diozunik,
ain gizon bizkor eta argia,
ez palta apaltasunik.
Zuk ezpazendu pentsatu izan
dan-dana etzekizunik,
zure itzetan etzan izango
dagoan sakontasunik.

5/ Zure sermoitan ikusten dana
gauz bat oso nabarmena:
zuk biotzean goxo ta kuttun
gorde dezun sinismena.
Or, maite dezun bide onari
eusteko dezun almena,
ori da zure izateko poz,
argi eta gozamena.

6/ Sinismen sendo batek guretzat
ba-du bai ondoren onik:
nola pentsatu mundutik joanda
gero ezer ez dagonik?
Esan diguzu gaur ez duala
ezerk asetzen gizonik,
eta ezpada ixaropenik
ez dagola zorionik.

7/ Beste bizitz bat ere ba-dala
bizitz onen azkenean,
poztutzen gera don Antonio'k
gogoratzen digunean;
zenbat konseju eder emanak,
zenbat lan gure onean,
itxaropena ereiñaz beti
maitasun gozoenean.

8/ Etorri ziñan une artatik
erretore Legazpi'ra,
zer gorabarak danak batera
gaur ikusi al ba'lira!
Ainbeste urte pasa dituzu
gure animei begira,
zuk bezin ongi gizona zer dan
dakitenak gutxi dira.

9/ Zutik egon nai, baiña erori,
sarri ikusi dezuna,
ondo dakizu nolakoa dan
gure ezereztasuna.
Nik uste, au da ain biotz bera
guretzat egin zaituna,
ta zeïnek neurtu gizonarentzat
daukazun maitetasuna?

10/ Erretore bat langillegorik
ez dakit iñork dakian,
or Elizaren serbitzu danak
bakoitza bere tokian;
eta nai aiña eliz-puntzio
oso era egokian,
Kristautzarako aukera paltik
ez da gure parrokan.

11/ Zuk apaizgintza artu zenduan
apaiz izateko gero,
iñork geiago gu maitatzerik
ote diteke espero?
Orain Legazpi'k omentzen zaitu
biotz guztiz eta bero,
nai luke zerbait zuk orrenbeste
maite gaituzun ezkeru.

12/ Orra nik ere nere omena
bertso batzuek medio,
itzez zertxobait esan det baiña
biotzak geiago dio.
Sakontasunez itzegiteko
nola ez dedan balio,
erren xamarrak irten ba'zaizkit
barkatu, don Antonio.

El Diario Vasco, 1979-VI-20 eta 21; *Goiz-Argi*,
1979-VI-30; *El Diario Vasco*, 1980-IV-30.

IXIL-ALDIA

- 1/ Lengo batean lagun zar baten sermoia aditua naiz,
baiña etzidan asarrez egin
baizik txit aurpegi alaiz.
Esaten zidan: «Ire bertsoak
len izaten itukan maiz,
ta orain beste askoren gisan
erabat alpertu. al aiz?»

- 2/ Aspaldi ontan etzait ugaldtu
bertsotarako ganora,
osasunari eldu eziñik
baidijoakit denbora;
ala ta guztiz noizean beinka
begiratu bear gora,
etsipenaren indarrarekin
ezpaita joaten iñora.

3/ Zortzi illabete inguru dira
gaixo aurkitzen naizela,
Donostia'ko «Residentzira»
iltzat jaso nindutela.
Adiskideak portatu zaizkit
nik merezi ez bezela,
nork esan neri ainbeste lagun
munduan banituela?

4/ Bost egun beintzat pasa nituan
beste mundura joanik,
ta nork pentsatu berriz onuntza
etorri bear nintzanik?
Ainbeste kezka eta ardura
ni ezerez bat izanik,
ez dira oiek danak ordaintzen
eskerrikasko esanik.

5/ Aixa gaixotzen ba'gera ere
lanak ditu sendatzeak,
amazazpi gau lo egin gabe
nik bezela pasatzeak.
Aiek zztada, indizio ta
odola ateratzeak!
Oraiñaldian zulo paltarik
ez dauka nere atzeak.

6/ Esan dizutet amazazpi gau
esna pasa nituala,
burutik gaizki zegon bat antsiz
aldamenean nuala.
Baretasuna bear nik eta
azer nolako itzala,
larrutik ondo ordaintzen degun.
Seguridad Social'a.

7/ Zerbait lasaitzen ba'gera ere
medikuz inguraturik,
ez gera iñoiz arritu bear
gizonak dexkuidaturik;
aiek pentsatzen nere burua
zegoela ondaturik,
itxurak ala ziran, baiña nik
biotza matxuraturik.

8/ Gauzak onela agindu zuten
joan nedilla etxera,
eguzkia ta aize garbia
artuaz paseatzera.
«Sano dago ta etorriko da
berriro bere onera»,
ez dakit nola ez naizen joan
beste mundura oster.

- 9/ Baiña oraindik ere ez dute
errukirik neretzako,
gatza kentzeko agindu dute
kaltegarri detalako.
Ainbesteraíño estudiantu
bear al zan ortarako?
Nuan guztia utzita ere
ez neukan ia gatz asko.
- 10/ Sobrean ezer ez ba'det ere
jakiz nago osatuta,
gure etxean debanerian
ez da ezer gastatu-ta.
Edari eta mokau goxoak
ordea debekatuta,
orra txoria gari artean,
baiña mokoa lotuta.
- 11/ Lagun maiteok, ikusi bada
nola nagon aspaldian,
bertsotarako tenple aundirik
ez daukat oraiñaldian;
garai batean amaika bider
poztu nintzana mendian,
orain nekerik komeni ez ta
exerita sukaldian.

12/ Triste samarrak izango ziran
gaurkoan nere kantuak,
lanak baiditu lagun jatorrak
ondo ezin eskertuak;
nitaz oroitu ziranak eta
orobat nitaz aztuak,
guztiak maite ditu benetan
nere biotz pitzatuak.

El Diario Vasco, 1980-IV-24 eta 25

ANIMA EZ DAUKAT ALAI

- 1/ Zerua goibel ageri da-ta,
anima ez daukat alai,
ala ta guztiz ezin ixildu
eta bertsoak jarri nai.
Ez dakit iñor egon diteken
nik zer esango detan zai,
baiña ba-dago zer pentsatua,
ta zer esana ere bai,
talentuz ondo egon ezkeru
bertsoetarako lain gai.

- 2/ Garai batean lana zan gure
elburuen zimentua,
aztu gaberik alkarrentzako
genduan errespetua;
gaur, zoritxarrez, ortik urruti
daukagu pentsamentua,
eta begira Euskalerrian
zer denboraldi estua,
lur joerazi bear diogu,
au da atarramentua!

- 3/ Danok alkarri mokoka gabiltz,
eta urritu da lana,
or gure gaitzak nundik datozen
argi ta garbi esana.
Etxeko eta kanpokoentzat
baratz emankorra zana,
ainbesteraíño zabartu gera,
sasiak artu du dana,
toki onera amildu degu
gure Euzkadi laztana.
- 4/ Orain artean egin deguna
bear omen da desegin,
ondorenean Euskalerrri bat
berria eraiki dedin.
Au onerako izan diteke,
txarrerako ere berdin,
emen gerora zer datorkigun
nork ote dezake jakin?
Garbi dagona, une onetan
lanak dirala gurekin.
- 5/ Kezka bat daukat nere barruan,
eta ez oso ariña,
bai ote geran geren buruen
jabe izateko diña.
Bazterrerratu bearko dira
gure alkartu eziña,
ta agintzeko aukeratuei
kontra egiteko griña,
ainbeste egin bear genduke
tresmalesak ez ba'giña.

- 6/ Lendabiziko garbitu on bat
eman geure etxeari,
bizkar emanaz gure artean
saltsa jarri nai dunari;
jaramonik ez gu salbatzera
datorrela dionari,
ez dezan emen bere burua
iñork egin agintari,
geuk erabaki bear baitegu
nork bear duan gidari.
- 7/ Erriak berak aukeratuak
ondraduak ez ba'lira,
artu gizonki neurriak eta
bialdu lengo tokira;
orretarako demokrazian
bide zuzenak ba-dira,
ez gaitezela gorrotoz jarri
anaietara begira,
burruka eta seta gaiztoak
ekarri gabe errira.
- 8/ Gazte maiteok, barkatu, arren,
mintzatzen ba'gera gordin,
baiña ondatzen ari gera-ta
onek ematen digu min.
Lenago ere naiko negarra
egiñak gera Euzkadi'n,
gaur edo biar gosea zer dan
nai ezpadezute jakin,
arren da arren, lengo arrian
ez estrapozorik egin.

El Diario Vasco, 1981-II-15 eta 18. Baita ere *El Diario Vasco*, 1984-IV-27.

IPARRAGIRRE'RI

- 1/ Iparragirre il zitzaigula
aurten ditugu eun urte,
arrezkeroztik zenbat ekaiztek
astindu ote gaituzte?
Denborak eta gizonak beren
azia eman oi dute,
urretxuarrak ereiña etzan
frutu gabea nik uste.
- 2/ Musikagille, olerkari ta
ez abeslari makala,
gure fueroen maitale sutsu
ta babestzaille leiala;
ezin ukatu euskal errien
xuxpertzaille izan zala,
joan zan baiña, oraindik emen
bizi da bere itzala.

3/ Ai!, zenbat kantu zoragarritzko
Iparragirre'k utziak,
betiko gure biotz-muiñetan
ondo asko itsatsiak;
ez ote ziran erri-maitale
gartsu baten irrintziak,
anai arteko pake-goseak
sortzen zizkion antsiak?

4/ Aldi illun da burrukatsua
zuri gerta zitzaizuna,
baiña aurpegi emateko zuk
izan zenduan zentzuna;
nola izan zan gorroto beltza
maitasunez erantzuna,
ala bizi da oraindik zure
abestien oiartzuna.

5/ Zure musika bera bakarrik
illuna omen genduan,
ta olerkia zer esanik ez
zenbaitenaren onduan;
biak bilduta ain lan bikaiña
nola moldatu zenduan?
Au miraria gertatu zana
gure euskaldun munduan!

6/ Errian zerbait landatu naiak
berekin du arrixkoa,
saiatu arren askotan ezin
egin guztiekikoa.
Ez det zalantzik zure eskeintza
izan zala egizkoa,
Euskalerrian zuri eskerrak,
maite baita *zortzikoa*.

7/ Fuegoen alde oso gazterik
emanik zure odola,
ba-zenekian gerra beltzetik
ezer onik etzegola;
pake santua goستن berriz
ezin aspertu iñola,
ta pake orren ereserkitzat
or «Gernika'ko Arbola».

8/ Atzerriratze maltzurren berri
jakin zenduan nai aiña,
jaio ziñan lur bedeinkatua
kuttuna zenduan baiña.
Espetxeratze, zigorkada ta
aldizka berriz iraiña,
senti duana dionak sarri
jaso oi duan ordaiña.

9/ Bizia degu lenengo baiña
askatasuna urrena,
gizona gizon izango ba'da
baldintzarik bearrena.
Au aitortu nai etzutenentzat
etziñan etsai errena,
askatasuna baizan zuretzat
doairikan ederrena.

10/ Gizonak bera jaio zan lurra
babestu bear omen du,
baiña guk ezin anai artetik
xextra gaiztorik aldendu;
bat egin baiño naiago degu
alkarri larrua kendu,
ez noski danok Euskalerrria
zuk aiña maite bā'gendu.

El Diario Vasco, 1981-IV-5 eta 7.

ONDO GAUDE...

- 1/ Inork ere ez du nai
begiratu goruntz,
eta beian ez berriz
bear ainbat jazkuntz.
Ain denbora gutxian
ainbeste aldakuntz,
baiña inundik ez da
guk nai aiña laguntz,
uste det egun beltzak
datozela onuntz.
- 2/ Geroz eta geiago
lan gabe daudenak,
jaio ziran ezkerro
bizi nai dutenak,
zerbait ere jan bear
ta ez daukatenak;
nork nai lituzke oien
kezkak eta penak?
Pasa ote digugu
egunik onenak?

- 3/ Estu bizi izanak,
nola geran lendik,
lasaitzea espero
genduan oraindik.
Eskabidea andik,
ta zerga emendik.
ezer esaterik ez,
danak gure gaindik,
zartzarorako pozik
ez dator iñundik.
- 4/ Ainbeste urtez joan
zintzo lantokira,
eta zartzen astean
au da berriz jira!
Au atarramentua,
jarririk begira,
eziña omen dator
laterri guzira,
zar-sariak urritzen
ez baldin badira.
- 5/ Zarrak goratzen zenbait
politiko prestu,
oiek bai gu maitatu,
oiek bai babestu.
Gauz asko agindu ta
mingaiñez eskertu,
berena egitean
laguntzen aspertu,
zugaitz zarra su-egur
biurtzeko gertu.

6/ Nai duten aiña diru
kendu bai illero,
gerorako dala-ta
ez sinistu ero.
Zartzean Estadutik
asko ez espero,
baiña orain nai degu
ta ez noski gero,
oillo salda bearrik
ez da ill ezkerero.

El Diario Vasco, 1983-X-21.

ZER EMANA URRI

- 1/ Mundu ontako egun guztiak
ez dira, noski, alaiak,
ori ederki erakusten du
gu bizi geran garaiak.
Lanik ez eta gizona merke,
alkarren aurka anaiak,
lurrun gozorik ez du berekin
sortu dan saltsa-usaiak.

- 2/ Bide ontatik ez ote goaz
berriz bizi eziñera?
Nere ustetan ez beintzat oso
etorkizun bikaiñera.
Iges-larrian jo izan degu
beti toki jakiñera,
zama guztiak botatzen dira
beian daudenen gaiñera.

3/ Nork eskatua ugari baiña,
nork emana dago urri,
daukagun pake premia eta
gabiltza oso biurri.
Drogazale ta lapurra pranko,
ba-da au naiko izurri,
irabazirik eza da gaurko
zoritxar danen iturri.

4/ Asko danean zuzentusunez
jokatzen bear da jakin,
urrialdian alkartasuna
urruti izan ez dedin.
Ta ez batzuek goza dezaten
beste guztiei eman min,
arazo danak ezpaititezke
konpondu egurrarekin.

5/ Goian dagonak bere burua
nabaitzen du sasoiean,
bere arauak gaiñontzekoei
zorrotz ezarri naiean.
Kupira gabe ainbat langille
kalera bota saillean?
Gogoan izan zer gertatu zan
ogei ta amaseiean.

6/ Euskalerrriak ikasbideak
asko ditula emanda,
esaera au, emen da nunai,
sarritan entzun izan da.
Utzi dezagun alkarrekiko
errieta ta demanda,
au azkar egin ezean gure
kapellania joan da.


El Diario Vasco, 1984-II-12.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

(101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapiain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arribabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.

136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.



AUSPOA
LIBURUTEGIA